



# TEOLOGILARIEN YARDUNAK





**ESPAÑI'AN : 10 Laurleko**

**ONGILLEAK : 20 »**

**ATZERRIAN : 15 »**

# YAKIN

( PRO MANUSCRIPTO )

---

10'gna. A R A N T Z A Z U'n - Udarakoa - 1959

---

## EUSKALTZAINDI. — ARI —

Gidari zaitugu. Ortarako jaio zifian; ortarako sortu zintugun euskaldunok. Euskera zaitzaille izan, euskeraren erroak sendotu ta euskal-idazleai mugarriak ezartzeko, Etzera, noski, akatsgabea; baiña guri, zure menpekoei, zure lege ta aolkuak onartu ta betetzea dagokigu.


Ba-liteke zure bideak gustokoen ta maitteenak ez izatea; baita beti bide zuzenetik ez eramatea ere, gizenok eta gizonez egifia baitzera; baiña inora joango bagera zurekin bakarrik joan gaitzke: ez dugu beste gidaririk, zu gabe or-emen, bide gaiztoetan, nunai galdu ta barre-

atu egingo baikera.

Agintari guzierenak bezela, zure aginduak ere, bear bada gerekoikeria mindu egingo dute, gure pentsakerari uko egin eta makurtzera beartzten baigaituzte; baiña euskaldunak, burrukaldi gogor ontan, batasuna ta gidaritzza bat bear dugu, ta ori zuk bakarrik eman dezaigukezu.

Onegatik zure agiri ori pozgarri izan zaio benetan YAKIN'i. Iñork baiño bearrago dugu gazteok zure gidaritzza, ta zure lenengo ekiñaldi onen ondoren, zera gogoratu nai dizugu: "EKIN eta YARRAI". Bai, betoz norma zuzentzailleak. YARRAI zure maixutza ortan, entzun-guraz gauzkatzu-ta.

YAKIN bere amargarren alera eldu da, gazteon kezka zabaltzaille dugularik. Jainkoari esker, borondate on asko topa ditu bere bizitz-zidorretan. Zenbaki bakoitzak kimu berriak eman dizkigu: lan-sorta oparoa eskiñi diguna. Baiña, batez ere, YAKIN'i sendia ugaritu egin zaio, 52 euskal-mutil dira zugaitz gaxte onen egalpean kabiak kokatu dituztenak. Elkarrizketa-atalean ikusi dezakezu YAKIN'ek bete duen eginkizuna: ar, azter ta epaitu ezazu, oker egifñak zuzendu ta akatsak suntzi ditezen.



TEOLOGIA  
FILOSOFIA  
SABILLA -

# AITA SANTUAREN ITZA

"XXIII YON'en Idazti lena".

"Egia, pakea, batasuna"

Iru itz auk nabari jartzen digute Aita Santuak Idazti ontan ta beste zenbait itzalditan azaldu dun eske larria. Egia, pakea ta batasuna, ara or, Eleizarentzat, Erriarentzat eta Gizartearentzat zorion-bide, irurak dira bata bestearen oñarri: egirik gabe pakerik ez, pakerik ezean batasunik ez. Irutan egin sendoena, beste biren giltzarri dalako.

XXIII Yon'ek Idazkiaren zear, iru egi oien bear lairia azaltzean, aristo'k orain ogei gizaldi gizadiari eskeñi zion bizibidearen agerpen labur bat ematea besterik ez dagi. Kristo'k opa zigun pakea bere jaiotz egunean "pakea lurrean gogo oneko gizoneri" (Lk. 2, 14). Kristo gizonen argi-iturri antzo azaldu zitzaigun, "Bidea, egia ta bizia Ni naiz" (Yo. 14, 6); Kristo'k ere oben-lokarriak askatu zizkigun gurutzean, Jainko-seme egin, goi-eskerrez apaindu ta Jainko-arekin batasunean bildu.

"Kristau zintzoak Aita Santuaren poz-bide."

Aita

Santuak Idazki onen sarreran bere poza ta esker ona biotz-biotzez kristau-erriari azaltzen dizkio, onen joka-bideak itxaropide zaizkio-ta. Itxaropide zitzailon Aita Santu berriari, XII Pio'ren eriotz ostein kristau-erriak eta ludi guziko gogo oneko gizonak azaldu zuten biotz-negar samia. Bafia itxaropide, batez ere, Pedro'ren Alkira igotzean kristau-erriak agertu zion leialtasun eta ueste osoa, izan ere asko baiziran gogo onenen beregana itzuli ziranak, naiz aldi aietan arazo ta buru-austetan gertatu. Beste ainbat zaletasun azaldu zioten semeek Aitari, onek ilbeltzaren 25'an Eliz-batzar nagusiaren berria ezagutzera ematekoan. Ta erriaren zaletasun au pozbide zaio XXIII Yon'i, berak dionez. Pozbide, egungo gizarte galduren ardian ere ba-diralako oraindik zenbaitzu, Kristo'ren Ordekoari dantzuiotenak. Auek dira, egia, pakea ta batasuna babestuz, gizadiarentzat gatz eta argi. Aueri, kristau zintzoeri beraz, zuzendu die batez ere XXIII Yon'ek bere lenen Idazkia, egia, pakea ta batasuna oifarriztat artuta, kristau-bizitza, norberak bere tokian, oso-osorik bete dezatela eskatuz.

E g i - b e a r r a .

Askotan negartu oi da gaurko gizadiaren egoera tamalgarria: Erriarteko guda ta artu-eman otzak, gizarte-bidegabekeri, gizarte-mailletako burruka, langille ta nagusi arteko ezin ikusia, anai arteko odol ixurtze, sendietan pakerik eza, t.a. Gaitz oiek nun dute sustraia: XXIII Yon'ek salatzen digu oien iturria: "Gizaki, Erri ta endak edenez bete ta askoren buru-biotzak naasten dituen gaitzak, egia ez ezagutzea dute etorburu ta sustrai. Bafia ez bakarrik egia ez jakitea, askoz geiago oraindik egia nardatzea ta bere aurka joatea." Aita Santuak esaten digu gizona ez dala berez gezurrerako joera ta guzi egia, aitzitik jatorriz eta izatez egian tinkatze-ko trebe dala, Jainkoak adimen ederrez edertu zun eta. Ta gizonak adimen zuzen orri jarrai ezker, bere Egille, lege-emaille ta gidari dun Jainkoa-

gana elduko dala. Baiña oben egiñez gero gizona makaldu da ta bere zentzuak naimenari uko dagio-  
te; adimenak berak ere, illunak artu baizuten,  
nekezago bereganatzen du egia. "Orregatik gerta  
oi zaigu -dio Aita Santuak- naiz adimen utsez  
egira eltzeko gai izan ala ere, erlijio ta zil-  
leztegiako gauzetan, errez ta gezur kutsurik gabe  
egira ez eltzea... Gaiñera adimenez gaindik dau-  
den egitara ez gaitzke goi-argirik gabe eldu."

Ta nolaz aizatu gizonari oben egiteak e-  
karri dion illunbea? XXIII Yon'ek damaigu eran-  
tzuna: "Orregatik (gizona goi-argitzearren) Jain-  
koaren Itza 'argi eldu gaitzean bizi dana'[1]  
lokarririk gabeko maitasunak eraginda ta gizadi-  
agaz errukiturik 'aragi egin zan eta gurean bi-  
zi[2] orrela 'lur ontara etorritz gizakume guzia  
argitu zezan'[3] ta bidetu ez bakarrik argi be-  
tera, onbide ta zorionera ere". Kristo, bere le-  
ge ta guzti degu bakarrik gizonok zerurako bide-  
an Argi ta Egi: "Beraz -dio Aita Santuak-, Berri-  
-Oneko erakuspenak onartzera beartuak gaude".  
Kristoren erakuspen, itz, eredu ta egiñak Berri-  
-Onetan eta beste Idazki Deunetan agertzen zaiz-  
kigu: "Orregatik, giza-adimenari egia ezagutzeko  
dun al-izatea ukatu edo gure osasunerako bearrez-  
ko zaizkigun goi-argiz erakutsitako egiak zapuz-  
ten baditu, Kristoren eta Paulo Donearen erakus-  
penak ez dauzka aintzat". Gaurko egunean gizonak,  
bere lanari esker, erreztasun aundiak ditu lur-  
raren ertzetik ertzera nolanai egia naiz gezurra  
zabaltzeko. Liburu, izparringi, aldizkari, irra-  
ti, zine ta T.V., gizakume guzien esku daude.  
Giza asmakizun oiek eztira berez okerrak, onak  
eta txalogarriak baiño. Baiña "zorigaiztoz, as-  
kotan batez ere gazteen grifia gaizto, gezur ta  
bizitza-okerraren su emaille dira". Entzun beza-  
te, gaztediaren aburu ta oiturak bere esku ditu-  
tenak, zer-nolako eskea dagien Aita Santuak: "Or-  
relakoak, lanbideak eskatzen dienez, gezurra ta  
zatarkeria ez-baiña eta ta on da oro zabaltzen  
saiatu bitez".

Pakea ta elkartasuna gizonari.

XXIII Yon'ek, bein  
baiño geiagotan, gizadiari pake-deia zuzendu die



Bere lenengo itzaldian orrela zien erri-agintariei: "Erriak ez dizue eskatzen, noski, anai-erzitza ta gizadiari galbidea dakazkioten izkillorik, pakea baizik, bere babesean gizadia onaro ta bere esku bizi dedin". Geroztik ere pakeaz mintzatu zaigu baiña batez ere Idazki ontan, ludiak aun urrundik dazagun pake ta elkartasun oien eske datorkigu. Ta pake orren oiñarri sendoa egia da XXIII Yon'en iritziz. Ori dala-ta pakeak luzaro iraun dezan, erriak eta batez ere erri-agintariek egi orren dirdaiak jo ditzala. Entzun Aita Santuari: "Inolaz ere, bear-bearrezko da, bai erritarrak, bai errien etorkizuna bere esku dutenak benetan egia gogoko izatea, errien eta bakoitzaren zoriona ta elkartasuna inguruan nai baitute".

Zergatik billatu bear dugu pakea? Bera lortzeak gizarte-erriari zorion eta aunditze dakarkielako? Ondorio auek naiz naiko izan pakea opatzeko, ala ere, XXIII Yon'en eskea goragoko arrazoi batean kokatzen zaizu: "Jainkoak gizonak oro anai egin zitun, ez etsai... ta erriak ze besterik dira giza-bazkun edo anaidi batzu baiño? Auek, anai-maitasunez elkartuta, bakoitzaren ez-ezik gizadi osoaren ona billa bear dute. Baiña, giza zorion eta batasun ori sortu dezaken pake orrek luzaro irautea nai bada, zuzenbidean zindoturik egon bear du". Zuzenbiderik gabe ez da Erri-arteko batasunik eta au gabe -Aita Santuak dionez- "ludia egoera estuan arkitzen da; orregatik negartzen dute gizon zurrak egungo gizadia egizko pakera edo bear bada beste ikaragarriko gudate zakarrera bideturik dagon edo ez".

Ez gaitu arritzen beraz Aita Santuak bein da berriz, gizadiari batasuna ezkatzen badio: "Guzioi, erri-agintariei batez ere, Jainko Egillearen aurrean arretaz aztertu zaitezteela ta alegiñak egin batasunaren alde, eskatzen dizuegu." Batasun ori, lenik, gizarte mailletan lortu bear da, erriak batasunean eta paketsu egotea nai badugu. "Gizarte-mailletan batasunik ez izatetik -dio Aita Santuak- sortzen dira gorrotoak eta ezin ikusiak; auengandik, berriz, iskanbil eta matxinada kaltegarriak, ta batzutan eriotza; era

berean dirurik eza, errien eta bakoitzaren diru-  
bidearen (ekonomiaren) lur jotzea."

XXIII Yon'ek langille eta nagusi arteko artu-emanak zuzen jarri ondoren bere mintzoa, kristau-sendiatarra doa; izan ere kristau-sendia baida egizko gizarte zuzenaren oifiarri sendoa. Orregatik kristau-sendiak Berri-Oneko eskariak ez baditu aintzat artzen, gizartea errain-mamiñetik gaitzak jota dago, beraz, ez du izanen luzaroan bizirik. Aurrera gabe, entzun dezaiogun Eliz-Buruari: "Sendiak ez badu pakerik, ez batasunik, ez ongi ikusirik, nolatan gizartean?" Ta orra, ze iduriko izan bear lukean kristau-sendiak: "Bedi Aita berean artean Jainkoaren ordezkoko, esku-agintzaz baiño areago bizibide onez biderakusle izanki. Amak, berriz, etxean xamur eta zintzo agertzen dala, aurreratu bitza bide onean bere aurrak, biotzez, alai ta sendo azalduz; zintzo ta atsegingarri dedilla senarraren aurrean; biak beren seme-alabak kristau onak ditezan, ezi ta erakuspen jatorrez oete, ortarako artu baidituzte Jainkoagandik doal bikainak. Semeak esaneko bitez gurasoei ta maita bitzate biotzez, ori baidute lege; gainera, gurasoen pozbidet, ta larrialdia gerta ezkeroko, laguntza ere izan bear zaie."

E l i z a r e n b a t a s u n a .

Idazkiaren irugarren zatia Elizaren batasunari buruz ari zaigu. XXIII Yon'i Pedro'ren Alkira igo ta bereala, kristau-erria ain zatitua ikusteak biotz ikara edo orrelako zerbait zemaiola lesakegu. Beintzat kristau-erriaren gidaritzan beregain artu ta bereala, Eliz-Batzar berriarekin kristau-batasuna lortzeko duan gogo larri ori agertu zigun ilbeltzaren 25'an. Kristau-erriaren itxura negargarria alde batetik, goi-ikutua bestetik (berak aitortu zun) izan dira Aita Santuari garrantzi aundiko erabaki au artzera eragin diotenak. Egun goragarri artan, berria labur-labur zemaigun; ondoren beste azalpen argi-emaille baten zai egon gera. Au ez da luze egin.

XXIII Yon'en itxaropen eta siñiste biziak:

Aita

Santuak ba-du itxaropena ta ez nolanaikoa, aina bat leia dugun batasun ori egi biurtzeko. Itxaropen orrek ez du giza-egifietan oiñarririk arkitzen, Kristo'ren jainkozko egite ta itz zinduetan baino. Aita Santuaren itzak dituzu jarraitzen dutenak: "Guziok dakizute, Kristo-Erosleak gizadiaren ondarreraño iraungo dun gizarte bat sumatu zula, 'lurra lur deiño zuekin izango nauzute' [4]; eta orregatik ere 'Guziak bat ditezan, eta Gugan bat ditezan, Zu, Aita, Neregan eta Ni Zugan bat geran bezela' [5]. Kristo'ri zion ederragatik Aitari ain begiko izango zitzaion eskari onek, itxaropen pozgarriak sortzen ditu Gugan, eta artegian arkitzen ez diran ardiak, azkenik bertara itzultzeko gogoa egingo zaiela ziurtasuna damaigu; ta orrela gure Eroslearekin ongi-etorri 'artalde bakarra ta artzain bat izanen dira' [6]. Kristo'ren itz auek ematen diote, ikusten danez, Aita Santuari iñoiz gal eziñeko itxaropen xamur eta sendoa. Itz oietan bere siñistea tinkatuta, artu ere artu du Eliz-Batzarra biltzeko erabakia. Batzar ori bitarteko lortu nai diran ondorioak auek ditugu: "Katolikoen Eliza zabaldu, Kristau-erriaren oiturak zuzendu, Eliz-legeak gaur-gaurko bearretara bidetu; laburtuz: "BATASUNA, EGIA, ELKAR-MAITASUNA".

Aita Santuaren batasun deia:

XXIII Yon'ek Kris-

toren gogoz eta egitez Elizak ditun iru batasun alderdiak, ots, ikaskintza, agintza ta jaurespidetza nabari jarri ondoren, kristau saiestuei mintzoa zuzenduz batasunara eragitearren xamurki deitzen ditu: "Arren, ongi oartu gero, batasunera ots egitean, etzaitutela besteren etxera deitzez, zuenera ta gure dan jaiotetxera haizik... Jainkoaren itza azaldu zizueten aurretikoetaz gogora zaitetze; ta nola lana burutu zuten begitan jarririk, aien siñistea eredutzat ar ezazute" [7]. Gugandik saiestuta bizi diran guzientzat orrelako anai-itz auek ditu: "Nai edo ez, anai ditugu. Gure Aita, esateari uztekoan, orduan

bai ez lirakela guretzat anai. Maita dezagun gure Jainkoa, maitatu gure Eliza; Ua Aita dugulako, Au Ama; Ua Jaun dugunez, Au Aren mirabedanez; izan ere guziok bere mirabearen seme gera".

O t o i t z - e s k e a :

Idazki onen irugarren zatia amaitzeko Aita Santuak kristau guziori ottoitz sutsuak eskatzen dizkigu. Eskari au ez dugu oraingoa. Len ere Eliz batzarraren berria emanda laster, maiatzeko ottoitzaldiak asmo onen alde zeruko Amari eskeintzeko eskatu zigun: "Eliz-Batzarraren ondorioak onak ditezan, kristauak, nork gartsuago, eginen dituten ottoitzak geiago dezakete inolaz ere, giza-lan eta almen guziak baiño. Orregatik, naiz ta gure artegikoak ezta, ala ere Jainkoa goratu ta bere aginduak gogo onenez betetzen saiatzen diran kristau guziori, ottoitz gartsu oiek eskatzen dizkiegu". Baiña, Kristo'k bere Aitari egindako eskariak damaio benetan erabateko itzaropena: "Gure itzaropen eta asmo aukerak aunditu ta egi bihurtu ditza la Jainko-Semearen erreguak 'Aita deuna, eman dizkidazunok zure izenean zaitu itzazu, Gu beze la, bat ditezan' [8]".

Idazkiaren laugarren zaiiak bate-betean dagerkigu XXIII Yon'ek bere Elizari dion ardura ta maitasuna. Azken zati ontarako utzi ditu amaika aolku eder eta bizkorgarri. Auetan lendabizikoak Eliz-artzaientzat ditu, berarekin egun beteko nekea ta beroa eraman dituten anai lankideentzat. Aueri eskatzen die batez ere, lan, arazo ta estualdietan Kristo'gan uste osoa jarri dezatela. Apaizai, berriz, bere gotzaiei esaneko biotz barrendik oiur dagie. Lekaide ta lekaimentzat, mixiolari ta katoliko-egintza'koentzat ere badi-tu itz bizkorgarriak. Baiña ez ditu aztu ez, ta ontan ikusten dugu bere guraso izatea, naigabetu ta beartauak, ogi-bidea nun arkituko ez dakiten langille, aberritik landa joan diran ainbat sendi bakanduak, eta giltzapean naiz esku zakarren mende naiz bizia galtzeko eran arkitu ala ere Kristo'ri zintzo diran ainbat kristau errugabeak: Guzientzat sortzen ditu Aita Santuak itz biotz emailleak.

### XXIII YON'EN BIGARREN IDAZKIA

Dagonillaren 1'an Aita Santuak beste Idazki bat argitaratu zigun Pedro Donearenean. Lenengo idazkia bere Doiburu-aldiari ezarri dion eginbidea edo orrelako zerbait azaltzen zigun. Oraingoan, berriz, urte au Ars'ko apaiz donearen eriotzaren eun urte betetzea dugula-ta, apaiz onen bizikera errugabea eredutzat jarri-ta, kristau guziori baiña bereziki apaiztaldeai esan nai die bearbearrezko dala Yon Mari Vianneyren antzekoak izatea, guzati galdua zuzendu, ta bere eginbide ori aurrera atera nai bada. Beraz XXIII Yon'ek, Ars'ko apaiz doneagan erriak ain zuzen ere ikusi dituan birtuteak nai ditu apaiz bakoitzarengan ikusi: Berri-Oneko aolkuak: apaltasuna, animan grifia ona, gurutz bidea, barne bizitza; labur, apaiz zintzotasuna orrela izango baida apaiza benetan Kristo bigarren.

Apaiz zintzotasuna Berri-Oneko aolkuak jarraituz:

Danok dakigu 42 urtez ze-nolako apaiz bizitza miragarria egin zuan Yon Mari doneak Ars'ko errikan: lazkeri ta damu-nekeeri sarri ekiñaz, Aldareko Sakramentuaren endoan igaro zitun ordu luzeak, guzia anima-zaletasunak zekazkion gurutzaldiaz aseta. "Bizikera au kristau soillentzat geiegikoa litzakela, dio Aita Santuak; baiña Elizak beti izan omen ditu, Jainkoaren ardurak ala naita, Gogo Gurenaren eragifnez, orrelako bide garratzetatik saindutasunera eldu diran zenbait animazale". Ta egitan saindutasunera iristeko bide bakarra dugu, adibidez, Kristo gure Jaunak erakutsi ziguna: "Iñork nere ondotik etorri nai badu, bere burua ukatu ta gurutzeta leporatu beza ta jarraitu bezait" [9]. Ta nortasunari ukatzeko erarik bikaiñena Berri-Oneko aolkuak jarraitzea dugu. Apaiza, alabaiña, apaiz dalako ez omen dago aolku oiek betetzea beartua -aitortzen digu XXIII Yon'ek bere aurreko XII Pio'ren itza ekarriz: "Eliz-gizon scillak ez daude Jainko legez Berri-Oneko aolkuak (beartsu, garbi ta esaneko izatea) gordetzea beartuta." Baiña erne belarria ondoren

XXIII Yon'en itzetara: "Apaiz-lanbideak ongi betetzeak lekaide bizikera soil berbera baino zintzotasun geiago eskatzen digu". Apaiza naiz Berri-Oneko aolkuak bete edo ez bete bere ezku izan, ala ere oien ondotik dauka zintzotasunerako biderik jatorrena, Kristo'ren jarraile oroentzat bezelatsu.

T x i r o t a s u n a :

Aita Santuak aurrez-aurre azaltzen digu Yon Mari Vianney apaizaren lander bizitza. "Ara Ars'ko santuaren beartsu bizitza, ortan Asis'koarekin berdiñeko, ontan ere ta garai batean Irugarren Senidetzan bere ikasle izana [10]. Besteeri ematekoan neurrigabe, beartsu ta estu norberarekin, lurreko aberaskizunetaz aztuta bizi zan; eta oieri ez baizien biotzik eman, soñeko naiz animeko bearretan arkitu ta beregana zijoan guztiari esku zabalez laguntzen zion". Errixka bateko santu aundi ua etzan bate-re ajolatze nundik jango edo nola dirua sortuko; beraz, bere dirubide koskor eta guzti, pozik zegoen: "Erabat pozik nago; ezertxo ere etzait gelditzen; Jainkoak, gogo damaionean deitu nazake". Itz auek adirazten digutenez Yon Mari doneak Jainkoagan itxaro zun guzia. Ta Jainkoak beragaz oso-osorik bete zun biotz zabal ua, 'Ni naiz zure sari arras bikaiña' itzak egi gertuaraziz. XII Pio "Ad catholoci sacerdotii" Idazkian orrela mintzatu zitzaizen apaizai: "...Ez diru griñarik, ez okerreko irabazbiderik; dirua nundik bilduko ez-baiña animen ona billatu, aintza Jainkoari ez norberari emateko asmoz beti" [11]. XXIII Yon'en itzetan asmo berdiña ageri da: "Naiz bartzu aberaskizunen esku izan, ala ere ez bemaio-te biotzik". Eta beartsuki bizi diran ainbat apaizen goratzarrez dio: "Jakin bezate, anitz pozten gaitula Kristoren eta Elizaren aldeko lanbidean atsegin-sariz gabe jarduteak."

G a r b i t a s u n a :

Garbitasunaren bitartez Yon Mari donea Jainkoari erabat emanda bizi zan. Otoitzaldi luze ta gartsu, damuneke, lazkeri ta eguneroko barau gogorreiresker biotza soñiaz nagusitu zan; eta naiz apaiz lanbideetan barna a-

maika arrisku izan, ala baiña bere garbitasunak etzun akatsik; XXIII Yon'ek egungo apaizak garbitasun beraz ederturik agertu ditezela eskatzen die ta oztopo-arriak nola baztertu ere erakusten die: "Bakartasunaren arriskutik aldendu, arinkeriak salatu, alperkeriaren tentaldiak eta lan gelegiaren kaltebidetik baztertu". Orrela jokatuz biotza garbi gorde-ezkero, "berekoi ez baiña anaien bearrai biotz emateko askoz gertu ta zabalago dagoke".

#### B a r n e - b i z i t z a :

Apai<sup>z</sup> bizitzari ta bere egin ugari ta gogorrei barne-bizitzak damaie arnas ta indar. Ori ondo zekian Yon Mari doneak, eta orregatik otoitzari eman zion bere bizitzan len-tokia. Ba-zekian ere animen aldeko lanak ez badira barne-bizitzaren arnasez induratzten lan guztiak alperrik dirala. Gogo bizitza edo Kristo'rekin batuta egoteak zemaie Ars'ko apaizaren eliz-lanbideeri indar. Barne-bizitz orri ta Jainkoaren laguntzari esker Ars'eko erri epel edo otz ua doi-doi Jainko-maitasun giroak bildu zun. Bere otoitz bizitzak eraman zun apaiz ua Zintzotasunaren goi mailletara. Otoitzean eskuratzen zitun egunero-egunero amabost ordu luzez aitortzak entzuten egoteko bearko zitun gogo ta egonarri arrigarriak. Otoitzak ere zemazkion barrendik azalera ain naroki azaltzen zitzazkion samurtasuna ta zorion-alaitasunak. Berak zion: "Ara otoitza, gizonarentzat lur ontako zorionbidea". Otoitzetan samurrenak eta gozoenak Aldareko Jesus Sakramentuarentzat zitun. Ikuste-koak ziran apaizak Eukarisko aurrean agertzen zitun begirune ta egoera apalak; Jesus Sakramentuari zion ez nolanaiko zaletasunaren agerbideak. "Or dago, zion, ainbat maita gaitun Ua; zer dala-ta ez dugu orobat maitatuko?" Ta beste batean erritarrei: "Bear bezela otoitz egiteko ez dira bearrezko itz-aspertu luzeak. Gure Jainko ona Aldare-kutsan dagola ba-dakigu; biotza zabaldu beraz; Bera aurrean izateaz poztu, orra or otoitzik bikaiña".

Aita Santuak, bere aurrekoen erakuspenak ekarriz, garbiro azaltzen die apaizeri zebatera-

ñoko garrantzi dun apaiz-bizitzan otoitzak: X Pio'k: "Apaiza bere aunditasunaren eta lanbidearen berdineko gertatu dedin otoitzari ekin bear ater gabe". Beriak egon bear du, beste inor baino arretatsuago, Kristo'ren agindura: 'Otoitz egin bear da'. XII Pio'k Erroma'ko apaizeri: "Kristauak pozik eta biotzez otoitzari ekitea nai baduzute, artu iezute bada aurrea elizan eta bere begitan otoitz eginaz eman eredia". Berak berriz: "Ala bearrez, Opari-maian gertatu oi dana apaizak bere biotzean gertarazten saiatu bedi; Kristo'k bere soin-eskeintza dagin antzo, apaiza Kristo'rekin hat eginik eskeini bedi; Jesus'ek obenen ordaina ematen dun bezela, apaizak ere kristau bizitzari garratz alderditik elduta, berak eta besteen obenak garbitu ditzala" [13].

Aita Santuak ezin utzi, bada, oso gora jaso gabe apaiz onek, animen grin onak eraginda, aitortegian, naiz kristau-ikashidea erakusten, naiz igandeko itzaldi luzeak ikasten ta egitean jartzen zuan gogo-zaletasunak nola ara erriko semen, naiz kanpotik aitortzera ta entzutera zetozkion aibat erromesen animetan Jainko-maitasuna suspertzearren.

Muxika'tar Errupin  
Lazkaoko beneditarra

---

[1] 1 Tim. 6,16

[2] Yn. 1,14

[3] Yn. 1,9

[4] Mat. 28,20

[5] Yn. 17,21


[6] Yn. 10,16

[7] Eber. 13,7

[8] Yn. 17,17



- [9] Mat. 16,24
- [10] Ikus "Arch. Secret. Vat.", t. 227, 137
- [11] Litt. Enc. "Ad Cath. Sacerdotii"; AAS 28, 1936, 28
- [12] Lk. 10,16
- [13] Ikus Adhort. Apost. "Menti nostrae"; AAS XLIII 1950, 667-668.



"BERRI ONA"

ETORRI 

 ZAKUKU

Lurraren gainean bizi giren giza-seme guziek moldatzen dugu kreatura guzien artean batasun berezi bat deitzen duguna: GIZAKENTEA. Gizakente horrek, bere hastapenetik oraierrat, ba-du iraganpen bat deitzen duguna: IXTORIO edo EDESTIA, mendez-mende giza-semek eta gizakiek ibili uratsen berri eta heien gogai, bizi-molde, aztura eta ohidura berezien berri emaiten daukuna. Bere-ziki, hogoigarren mende huntan, gure jakintsun xorrotzek, arta haundirekin, argitaratu dituzte aintzunuko mende ilunak. Gisa hortan, hobekia-go bezik eztugu ezagutzen gizakentearen iragan-pena eta dauzkan erakaspenak, geroari buruz argitasunekin jokatzeko.

## I.- ZER GISAZ AIPA EDESTI SAINDUA ?

Ba-dakigu, guhauren esperientziaz, gizonak bere baitan dakarkala arrangura bat: Jainko-arrangura, teologilariek deitzen dutena erlijio sendimendua, Jainkoaren bila bultzatzen gaituena eta Hari lotzen bezala, beharretan giren begirale bati bezala. Sendimendu horren jabaltzeko, satifatzeko, ditu gizonak asmatu bere gisako jainko suerte guziak eta adoratu munduan diren " ZER " indartsu asko. Horrela dira sortu, hauditu eta hedatu oraino hoin azkar aurkitzen ditugun erlijione motak, hala nola: Budismoa, Hinduismoa, Islamoa, Xina ta Japoniako erlijione bereziak, Afrika' koak... Adimena jatzar arau, jakitate gosea du gizonak senditzen bere baitan, gogoan moldatzen zaskola zonbeit galditza: zer gisaz eta zendako mundurak etorri den; norat doan; zer arrazoin duen bere bizitzeak izaiteko.

Gure galetik ezbaztertzeagatik, ezditugu ikertuko mendez-mende hain liferentki gizonak asmatu izan dituen ihardespenak, kestione hoieri eta beste anitzeri buruz. Behar liteke anitz jakitate, anitz xehetasun... Bakarrik ikus dezagun girixtino erakaspenak zer dion. Ikasi izan dugu Edesti Saindua kundatzen daukun Biblio liburua irakurtuz eta ikertuz, munduan den EGIA-RIK HAUBDIENA. Gizakiak, mendere-mendeetan, za-

biltzan Jainkoaren bila. Beren bidaiia luzean, Jainkoak prestatzen zituen bere hitzaren aditzetat, bere mintzoaren ezagutzerat. Moldatzen zituen heien begiak zabalduz, heien beharriak idokiz, heien arima oratuz bere amodioan. Gizakente guzia, mila bidetarik, haztamuka, zoan mendeen bidean Egiazko Jainkoaren bila, uste etzuelarik, Jainkoak berak bidaturik. Gizakente guzia Jainko bila, itsu bat argi alde doan bezela argiak berak deiturik. Ezta erraitearen beharrik, gizakentearen ibilpen hori eztela guk uste ginduken bezain errexki egin. Bere ahulezian, trenpu gaxtoan den gizona doan bezala, ahal nolaka bide hertsian, eskuin ezker, behaztopatuz: halaber gizakentea Jainkorateko bide ilunean. Orai ere gizakentea ba-doa beti bere bidean, ilunpeetarik jalgiz bizia daukan argiaren bila. Argiak beitauka bizia agerian.

Eta nola, bere iduriko, Jainkoak nahi izan beitu gizona kreatu libro, emandako bere kontra bihurtzeko ahala ikaragarria. Ez segurki nahi zuelakoan bere kontra bihur zadien. Bainan nahi zuelakotz, berak azkatasun osoan kreatu zuten bezala, bere alde itzul zadien amodiozko urats batean, azkatasun osoan. Nahi zituen guziak bazituen, munduaren nagusi jarri beitzuen Kreatzailak. Beretzat nahi zituen guziak, nahi zituen bezanbat. Lurra bere besoez jasaiteko; bere eskuez ikertzeko eta lantzeko. Zeru, mendi, zelaiak, pentze nasai, loretsu... begien goxatzeko.

Xorien kantuak zuhaitz kaskoetan, sasipe gordeetan... beharrien xoratzeko. Abere suerte guzietarik, berak eman izenekin, bere nagusitasunaren finkatzeko. Bere adimena eta bihotza Jainko Kreatzailearen maitatzeko, mundu guziarekin goresteko. Lurretik Jainkoak sorarazi gizona (Adam), lurra-  
ren erdian landatua, kreatura guziekin izaiteko Jainko Kreatzailearen goresle, azkatasun osoan. Jainkoaren iduriko: adimenez argi, bihotzez amodio. Kreatura guzien artean, Adam, xutik landatua, burua gora, soa xorrotx. Adam, kreatura guzien nagusi lehen Jainkoak jarria, haundi, eder, boteretsu [Asiera 1, 26-31 ; 2, 7-24].

Bainan gizonak eztu jakin bere askatasunaz ongi baliatzen: huna nun bere Jainkoaren kontra bihurtu den, oldar gaitz batean. Satan'en mintzoa aditu baitzuen eta behatu: zer diozue? Kreatzaileak holakorik aipatu dauzuela? Emazue otoi hortik bakea. Ezditake holakorik. Utz bazterrerat otoi Jainkoaren errana. Izan zaizte zihaurien Jainko, eta mana mundua zihaurien ideien arabera. Har mundua errotik eskutan, zihaurantzat. Izan zihaurien buruaren eta munduaren jabe bakar. Hori beita azkatasun osorateko bide bakarra. Orduan dukezue Jainkoaren jakitatea. Eskutan dukezue betikotzat egiazko zoriona [Asiera 3, 1-6].

Gizonak Jainkoaren uratsa ezagutu zuen bere sahetsean eta aditu Jainkoaren mintzoa: "... Hire emaztearen mintzoa behatu beituk, ez jateko agindu naukan zuhaitzetik jan dukanaz gero, lurra

hire gatik gaiztetsia izanen duk; nekearen-nekez aterako duk hartarik hazkurria, hire biziko egun guziez; saparrondo eta laharrak ekarriko dauzkik, eta landako belarra janen duk. Hire bertaiteko izerdiaz janen duk ogia; lurretik sortua haize-naz, lurrerat itzuliko haiz; hautsa haiz, eta hauts birhurtuko haiz" [Asiera 3, 17-19]. Geroztik gizakente osoak, bihotzean dauka bekatuaren kolpea. Aintzina ooa, bere bizi bidean, lurrari herrestan bezala, ezin xutituz, deika...

Amodiozko Jainkoak etzezaken debalde utz bere eskuez moldatu gizona. Xede berri bat asmatu izan du gizonari eskaintzeko salbamendua. Xede horren obratzeko hautatu izan du lurraren gainean agertu firen gizakien artean gizaki bat, Israel deitu zuena. Lehen eta azken aldikotz ere, gizakentearen adestian, gizaki bat hautetsia izan dela beste guzien artean, Jainkoaren goi-agerpenaren erateko izaiteko. Gizaki xume bat, gizaki haundiaren artean galdua, harat hunarakatua neien basa oldarrean. Israel hautetsia Jainkoaren xede haundiaren obratzeko. Gertakari baitezpadakoa gizakentearen edestian, gehiago agituko eztena: Jainkoa mintzo gizonari eraiteko "NOR" den eta "ZER"duen egingo; Jainko bila doan gizonari ezagutarazteko gizona "NOR" den eta "ZER" duen egin beharko Jainkoarekilako amodiozko batasunean sartzeko. Salbamendua eskaintzen duen Jainko amodiozkoa. Jainko bakarra, lehena eta azkena, betierakoa, gauza guzien Kreatzaile eta

Nagusi soberanoa:

"Medniak sortu baino lehen,  
Eta ortzi-lurrak sortu baino lehenago,  
Betiko aspaldinotik bizi zira Zu, Jainkoa"  
[Er. 90, 2].

Mundua eta gizonak denborarekin kan-  
biatzen direlarik, sekulan kanbiatzen ezten Jain-  
koa. Iraganpena eta geroa dauzka beti oraiean.  
Gaztetasunik ez, zahartziarik ez: bakarrik orai-  
ean beti Jainko, "ni naiz nizana".

"Zeru-iurrak suntsituko dira;  
Zuk, berriz, diraukezu.  
Oro arropa bat bezala hingatuko dira,  
Jauntzi bat bezala aldatzen dituzu,  
Zu, ordea, beti bat zira,  
Eta zure urteek azkenik ez dute"  
[Er. 102, 27-29].

Abraham hautatuz eta deituz, Jainkoak  
gizaki berri bat du sorarazten, mundu berri ba-  
tean egiteko. Abraham: giza gaizo bat? Ez. Bai-  
nan adinetako gizon sendo bat, zangoak lurra  
daiola, arima fedea daiola. Gizon zintzo garbia,  
Jainkoak hautetsia bere gizaki berriaren lehen  
gizon. Salbamenduaren azia Jainkoak erein du  
Abraham'en bihotzean, hor aurkitu beitu giza-  
-lur gizen aberatsa. Orduan Jainkoa sartu da  
gizakentearen bihotzean. Orduan Jainkoak hasi  
du gizakentearen erreberritzea. Abraham: Kana-  
nea'ko bidexketan herrestan zoan gizon zahar

kankail, bizar luzedun bat? Ez. Bainan adinetako gizon sendo bat, gizaki berri baten buruzagi, Jainkoak erakutsitako bideetan erne eta zalu zoana: indarrez bere bi zangoak lur idorrean berme, fedeaz bere arima Jainko amodiozkoan berme. Abram: lurtiarren seme! Abraham: sinesdunen Ita! Israel, Jainkoaren gizaki berezia, bere pedagogiaren arabera altxatuko duena, argiz eta dohainez beteko, lagunduko aspaldinotik hitzeman zion Lur Sainduraino.

Barnetik aztertuz liburu baitezpadako hori (Bibloa), laster ohartzen gira, goizetan argia emeki-emeki agertzen den bezala, Jainkoak berak dauzkigula kundatzen gizakentearen argitzeko eta salbatzeko ibili lanak. Jainkoa bera dela erraiten gertakarien medioz bere gizakia-ri, hunen adimendua jatzar arau. Hobekiago u- lertzen dugu zer gisaz Jainkoa sartu izan den gizakentearen edestian, nola mintzatu gizonari, bere Izaitea salatuz eta gizonaren izaitea ar- gituz, zituen errangureri eta bere baitan sortu kestone suerte guzieren egiten zuela ihardes- pen, ber denboran itxaropena emaiten. Hobekiago aditzen dukegu ere, zonbat den Jainkoa bekaizti bezala bere Jainkotasunaz eta nolaz ez dezaken nihundik onart gizonak hauta dezan Hartaz beste- rik:

"Ni naiz Jaube, zure Jainkoa

Egipto'ko leihorretik, morroi etxetik, ate-  
[ra zaitudana.



"Ene aintzinezn ez onart beste Jainkorik,  
Ez lant iduripenik goiko ortzian, behereko  
lurrean edo lur sakonetako uretan daite-  
ken edozeren antzez.

Holako iduripenen aintzinean ez eman ahaspe  
Etzazkitzuela xerbitxa.

Ezen Ni bainaiz Jaube zure Jainkoa..."

[Itzaldiak, 5,6-9].

Ni lehena eta azkena naiz,

Nitaz besterik ezta Jainkorik" [Isai, 44,6]

Jaube, Jainko amodiozkoa Zuri giza-  
kente osoa oihuka, besoak luze-luzean, eskuak  
zabal. Gizakentea, erautsean herrestan, ezin  
xutituz, zorion bila. Gizakentea, bekatuaren  
ilunpeetarik ezin jalgiz, indarka bizia ageri-  
an daukan argiari buruz. Jaube, Jainko Kreatzai-  
lea etzira elkor izan gizonaren deiari. Itzuli  
zira gizakentearen erpegiaren azagutzeko. Ondo-  
tik hobekiago behatzeko, hurrandu zira gutar-  
terat. Eta zure mintzoa hautemana izan da biho-  
tzetan, itxaropena sortu beita orduan gizakente  
osoaren bihotzean. Zure uratsa gizaki xume ba-  
tek ezagutu du bere bizi leku erremuetan eta a-  
ditu BERRI ONAREN lehen aleak. Zure eskuak lan  
berri bati hasi dira, giza-lur dorpean hasi  
beitira iraulden, Salbamenduaren hazi onaren  
ereiteko. Nork aipa zure obra miresgarriak?  
Jainko boteretsua giza-lur idorrean amodioz  
hasi zira lanean, gizakente berri baten sora-


razteko, eta gizakentearen bihotza itxaropen  
berri batek hartu du, biziaren bila gizon gu-  
ziak oldartzen dituen itxaropen gozoak.

(aintzina jarraitzeko)

Arnaud ERDOZAINZY-ETCHART  
-prantziskotarra-

Paris'en 1959'ko Ekainaren 14'an

---



# ORTEGA'EN BIZITZ- ERRAZOIMENA

A.Ramírez'en liburu bat dala-ta, egu-notan Ortega y Gasset'en filosofiak buruaustek eman ditu. Ba-ditu, bai aldeko ta baita etsaiak ere. Elkar astindu dute benetan. A.Ramírez eta beste zenbait, Madrilleko filosofiararen kontra; Laín Entralgo, Aranguren t.a. bere alde. Ortegismu katoliku bat eratu ote diteken galde-tu da. Ortegazaleek baietz diote, eta jakiña, besteek ezetz. Or jardun dira errebista geiennetan arrazoiak zorroztu, ta bakoitzak bere eritzia oinarritzen.

Ortega, beraz, gaurkoa dugu; onegatik, guk ere azterkatu dezagun apur bat bederen, bere filosofiaren puntutxo bat: bizitz-errazoimenaren eginkizuna.

Orañartean filosofilariek lanerako errazoimen txatxal bat bakarrik izan dute, tresna oso maketsa; errealidade-erraietan -bizitzanbere kizuna, lan-gaia, xurgatzeko gauza etzan errazoa. Errazoimen orrek -onela diote Ortega-zaleek- mundua sub specie aeternitatis ematen digu.

Errealidadea, berriz, onoko au edo arako ura da; baina filosofilari klasikuen errazoimenak ez dizkigu "au-tasun" edo "ura-tasun" oiek ematen; bi "tasun" oien gain dagon eta biok menperatzen dituen idea bat eskuratzen digu soilik. Idea onek, ordea, izaki guzientzat bakarra izanik, bakoizki osoa, izate berezi guzia, ez dezake jaso. Izate bakoitzak albokoarekin duen berdintasuna, bai; ez, ordea, bakoizki orri dagozkion berezitasun ta desberdintasunik.

Adibidez: ni "gizona" naizela agertzean, ez dut nigan duan dena adierazten. Baizera! Ori esatean, izaki batek "gizon" izateko bear duen zerkia, esentzia, nik ere ba-dudala agertzen dut; baiña "gizon" orrek ez dit aitatzen nik beste gizonekin dudan desberdintasunik. Nik ba-dut zerbait "ni" ta ez beste izateko, "gizon" orretan ez dugu, ordea, orrelakorik aurkitzen. Munduko izakiak aldakor ta aldiko dira; baiña ideak aldakaitz eta betiko. Izakiari aldiak ta mundu-gertakariak ematen dioten bearbadasuna, kontingentzia, errazoimenak, lantzean, kendu

egiten dio. Mundua, alditik aterata, betikotasunera daramakiela esango genuke. Errealidadea ta gogaia edo idea, ez dira, ba, berdizak.

Oraindik ba-du -Ortega ari da izketan-filosofilari jatorren, klasikuen, errazoimenak beste ostopo-arri bat ere. Errealismuaren errazoimena berezko, azke ta gauzakien gaindiko zan: errazoimena munduko agintaria. Filosofi-sistema onentzat "gauzaki oro-ulergarria da". Idealistek, ordea, esakun ori alderantzira jarri zuten: "ulergarri dena benetako gauzokia da". Bi filosofi oiek aurkakoak izanarren, biek errazoiaren berezkotasuna, absolutismua, ontzat ematen zuten, eta ori ez dezaieke Ortega'k barkatu.

Ortega'gan "berezko" [?] errealidadea bizitza da bakarrik, ta errazoimena orrengan itsatsi bear dugu. Errazoimena, bizitzarekin besoz-beso dabillena da.

Errealidade bakoitzari errazoimen bat dagokio, kideko zaion errazoi bat. Au bear-bearrekoa dugu, errealidadea ezagutu nai bada. Orainarteko filosofiek errealidade-atal bat soilik ausnartu dute: errealismuak gauzakiak ta idealismuak "ni"-a. Ori ezagutzeko egizko errazoimen-zati batekin aski genuen eta filosofi oiek orrekin gelditu zaizkigu. Ortega'k, berri, errazoimen berri bat bear du, errealidadea ere berria du-ta. Bizitza du gauzatasun berri ori, eta bizitzarentzat bizitz-errazoimena (ra-

zón vitali) aukeratu du.

Eraberritze onek ona nora garamazkien: kondaira-errealidadea edoski dezaketen adimenkera, kategoria, berriak prestatzera. Gauzakiak -sustantziak- beti eskuartean erabiltzeak, eragozpen aundiak bideratzen dizkio gure adimenari "egite" diranak atxikitzeko, ok aidakorrak, bizidunak, baitira, ta ak ez.

Arestian, idealisten errazoimenaren berezkotasuna aipatu dut; baiña Ortega'k ez du deus berezkorik, absoluturik; bere filosofian dena erlatibu, bestezko, da. Errazoimena ere derrior bestezko izango da, beraz. Bizitz-errazoimena ez da berezko errealidadea, errealidade-zuzterean (realidad radical) errotua baiño.

Bizitza ta bizitz-errazoimena bat dira, ura baita errealidade-zuzterra ta orregandak baitator arrazoi au. filosofilariek -ala diote Ortega'k-eta- bizitza ta errazoimena ez dituzte oraindik bear bezela batu. Errazoi-zaleek -errealista edo idealista izan- bizitza errazoipean ito dute. Gaurko bizitz-zaleek -Bergson, Unamuno...- errazoimenaren aurka jarri dute bizitza. Ok, zakur-katuak burruka egin ez dezaten, banandu orde, bai il egin dute: errazoimena lurpetu, alegia; onela ez da burrukarik izango, ez.

Ortegazaleek ba-dute bizitz ta errazoimen arteko eztabaida onentzat askabiderik.

Errazoimena bizitzatik edo nire bizitzatik jaio da, ta bizitza oni lotua dago. Errazoimen onek ez du, egalari, gogai billa joaterik; ori egin gabe, errealidae osoa -bizitza- ezagutu baitezake. Bizitz-errazoimenak nire bizitza ezagutu dezake, ta au ezagutzea gauzatasun osoa xurgatzea da, berez ez baitako bizitza besterik: beti bizitzarekin dabillelako, errazoimenak ori ba-dezake. Aita Oromi'k dionez, errazoimen au "ancilla vitae" da.

Ortegazaleek diotenez, ez dago errazoimen ta bizitza artean erabateko paketzerik, ez bailitzake legezko izango ere. Errealidade-zuzterrondotzat bizitza eman digutenetik, ez ditza-kete ontzat eman ez errealista jatorren eritzia, ezta azken gizaldiko errazoizaleena ere. Leenen-goek, eskolastikuek batez ere, errazoimena bizitzaren pareko egin ziguten, eta au ezin diteke, errazoa bestezko ta bizitza "berezko" diranez. Besteek bizitza errazoimendu egin zuten; jauna morroipean jarri. Ortega'k, berriz, errazoimena bizitu egin du; onela errazoa ez da bizitz-aurkakoa, bizitz-morroi baino: ez dugu jerarkirik iraindu.

"Bizitza", beste gabe, iñun ez dagoela esan genezake, "NIRE BIZITZA" hakar-bakarrik baitago. NIRE bizitza soilik da munduan eta bakoitzak NIRE BIZITZA dio. Bizitz onek morroi bat du: errazoimena, bizitzaren itsu-aurrekoa. Itsu-aurreko onek niretzat balio du bakarrik, ez

itsu guzientzat, nigandik ta niretzat jaio baita. Oraiñarteko filosofiek, ordea, guzientzat itsu-mutiko bakarra eman nai izan digute gizonoi. Au da filosofi oien beste akats bat. Bizitzak baiño geiago ikusten zuen errazoimenak; baiña Ortega'k errazoimen ori bizitzaren esaneko biurtu du, ta onelako errazoimenez berealaxe gatoz errealdade-zuzterra osorik ezagutzera.

Ortega'ren ustez, berak amaitu du errazoimen ta bizitz arteko antinomia; bere filosofian elkar besarkaturik, betiko adiskide egin dira. Ortega'ren errazoimenak bizitza bakarrik ezagun dezake, ta onek erakusten diona bakarrik ikusi ta aitortuko du; bizitzaren aurka ez du tuktik ere esango. Bizitz-errazoimenaren eginkizuna, nire ingurukoekin dudan bizi-gudaketa osorik ta xuxenki argitzea da: nire aurre-atze ta ezker-eskubietan ditudan etsai nola suntzitu irakastea. Ni, nuaaitik ta edonoiz, osorik eta sendo, ateratzeko prest egon bear du errazoimenak. Ortega'ren errazoiketak ez du gogai orokorrik, unibersalik; aski da au ta ori nigan edo nire bizitzan nola tinka ditzakedan jakitea.

Ortega arterainoko filosofiek ezagutzaren analisi bat eman digute. Bizitza landatzeko filosofi-alorrean aitzurketan saiatu da errazoi-keta ori: jakintza-oñarriak nun aurkitu ibilli da, alegia; filosofia bizitza aurretik joan da, ostatu billa-edo. Filosofi oiek bizitzarentzat errealdade-zuzterrondoa eman nai ziguten; baiña



ez konturatu gizarajoak sustrai ori bizitza berbera zutenik. Asiera-asieratik bide galdua artu bazuten, etziran noski jomuga onera bereala iritxiko.

Galtzerdiak egin beaurrean gertatu zan filosofia; baina ortarako neuririk ez... Etzan ordea koldartu: galtzerdian egin eta oiñak oen neurrira erakarri zituen: bizitza errazoimenaren neurriko biurtu, elegia. Ortega'k ez du onelako burugabekeririk egin. Berak ere etzuen neurririk; baiña oiña (=errealidadea, bizitza) bai; artu du eskuetan oin ori eta bere gain egin digu galtzerdia (=errazoimena), eta, ikusia dago, oiñaren neurri-neurrikoa eratu da. Filosofi-kondaira guzian, leenik Ortega'k eman digu errealdadeari dagokion errazoimena.


Sekula munduan porrotik izan bada, filosofiarena izan da: bere eginkizun bakar-bakarra errealdadea ezagutzea izanarren, dena, oso-osorik, bere menpetik at gelditu baitzaio. Sustantzi ta esentzi irmo ta aldaezinak artu ditu oinpekoztat errealdade benetakoak bailira. Itsu alena! "Bizitza, -dasaieke Ortega'k-, bizitza duk errealdadea, eta au berez aldakorra danez, beti jarioka zebillek". Argi ageri da beste oiek filosofitiko eta egizko errealdadetik landa dabiltzana, filosofirik ez dutena.



Urtega'k egin digun kritika onek ba-du galdera batzuen premia. Berak itz egin digu eta orain guk galde dezalogun: zergatik ez dezake eskolastikuen errazoimenak -eskolastikuenak, ordea, -errealidadearen egia eskuratu? Zergatik egin duzu eskolastikoena Parmenide'ren izaki illa? Parmenide'ren izakia al da oen sustantzia?

Ukabilkalariek, "ring"-era igo aurretik, izan oi dituzte ekiñaldi beroak mamu-gizon batekin, baita muturreko sendoak eman ere. Ba-da kemena ta indarra an! Baiña etsaia aurrez-aurre agertzean kontuak... Orobatsu egin du Urtega'k ere: gezur-eskolastikarekin ukabilka jardun; baiña itxoin zak, ia egizkoak esku-muturra erakusten dian...

Intxausti'tar Joseba

Arantzazuko praillea





o o o o o o o



**KULTURA  
IAKINTZA  
ANTZE**



ARIBATIMU KRISTIAN

# PROBLEMA AUNDI BAT:

# BIZITZA

Gizarte kontuan ikusten ditugun problema guzietan aundien eta negargarriena BIZITZA da. Artikulu guzian BIZITZA izen au erabiliko dut bizitegi edo "vivienda" adierazteko. Ba, egi aundi ta garratza au -egunero ikusten ari gera bazter guzietan- ez dut uste iñork ukatu didanik.

"Bizitze gizarte arazoaren korapilloa dala", dio Jorje Picot'en. Pio XII'gank berriz, "problema unibersala dala, ez toki batzuetan sortu dana, mundu guzian baiño.

Ara ba, irakurle, gaur bizitzaz itzegiteko asmotan natorkizu. Jakiña, ezan dizudan bezela, problema unibersala ta aundia dan ezkerroz, puntu asko argitu gabe geldituko dira, orregatik barkatuko didazu, noski, nere moteltasun au. Ta besterik gabe ekiogun lanari.

## BIZITZAREN URRITASUNA

Bizitza gizonari dagokion eskubide bat da, eta bizitzeko bear duan gauzarik bearrenetakoa. Idazteunak ere argi ta garbi esaten du: "Bizirako bearrenak ura, ogi ta lotsakizuna esaltzeko jantzia dira". Elementu guzti auek bearhearrezkoak dira gizonak legez ta bidez bizitzeko. Auetako eskubide bat gizonari ez dezaioke ukatu ta gutziago pamili bati. "Pamili batek etxe bat eukitzeko eskubidea dauka; lenengo, pamili barruan bizitza ona ta eliskoia eraman nai badu, ta bigarren, itsurazkoa da pamili baten tzat bere nazioko lur pixka bat eukitzea" (Malinas'ko Araudi, 33 zenbaki). Ba, pamili askoren zoritxar ta gaitzak onela aldenduko lirake. Baiña, mundura begira jartzen bagera, zer ikusten dugu? Mugimentu aundia, ori bai. Batzuk beren negoziotan pentsatzen, beste batzuk zinera edo futbolera presaka dijoaz, beste gauzetan pentsatzeko denborarik gabe, eta bitartean berriz, millaka ta millaka pamili goseak iltzen eta etxerik gabe bizi dira. Au bai dala zoritxar ikaragarri ta negargarria!

Joan dan urtearen azken illeko "Surge" deritzan aldizkarian bizitzaz orrialde bat zekarren; bizitzari buruz sortu dan problema ikaragarria adieraziaz. Azkenean auxe esaten du: "Problema énen aurrean, gu apaizok ezin gindezke ixildu. Larru-gorrian dagona jaztea, egarria daukanari edateko ematea eta erromes dijoanari aterpe bat eskeintzea errukizko egiteak baldin badira, baita bizitza gabe dogonari etxe bat ematea ere. Ta bear oni eskubidea emateko apaizak lan egin bear dugu".

Gaur Españi'n milloi bat eta berreun milla [1.200.000] pamili bizitzarik gabe daude. Bizimodu gogorra ta negargarria eramanaz sei milloi [6.000.000] gizon-emakume etxerik edo aterpe gabe (Surge, zenb. 163). Oietatik millaka ta millaka txabola zaarretan bizi dira, ta beste millaka ta millaka bizitza bateko gela batean.

Pamili asko bizitza txiki, txar eta zikin batean -animaliak ikulluan bezela- bizi dira. Beste nazioetara begiratzen badugu ara zer ikusten dugun:

Belgica'n 1.600.000 bizitza palta dira.

Itali'n 4.000.000 gizon-emakume etxerik gabe bizi dira.

Asia'n 500.000.000 bizilagun bizimodu txarrean daude.

Latin-Amerika'n 11.000.000 bizitza palta dira. (En la escuela de lo social Giner y Aranzadi, 7'n or.).

Bizkalian argitaratzen dan -LA GACETA DEL NORTE deritzan egunerokoak- bizitzari buruz artikulua sail on bat argitaratzen datorkigu aspaldi ontan. Agintariak zerbat mugitzen ari dirala dirudi. Miguel Angel Astiz lan da lan gelditu gabe ari zaigu izendaturiko egunerokoan. Gorapen bereziak irabazirik dauzka naporroko idazle onek. Sarritan euskal-kulturari buruz jarduten du, beste batzuetan erlijioz, eta azken aldi ontan bizitzaz diardu. Ta nolako artikulua eder ta xamurrak! Izan ere, Bilboko bizitza-bearra aundiaz kontu-kontari datorrenean biotza erdibituta gelditzen zait. Pamili asko bizitzarik gabe daudela ba-dakigu, baina orrenbesterainoko zoritxar aundia zegoanik ez genduan uste. Aitatu dedan idazle urduritsuak kontatzen dizkigun anedokta ta miserikeri batzuk ona emen:

Lenengo pamiliko aita baten eskutitza da: "Bilboko semea naiz, ezkondua nago ta iru alabakin: bat emezortzi urtekoa, bestea emairukoa, ta azkenekoak iru urte dauzka; nere andrea eta ni. Dana dala, bostok gela txiki batean lo eginaz, (gela onetan oi bat besterik ez da sartzen) eta gela ortan jaten dugu. Ta orain esaldazu neri: uri bazterretan txabola zer batzuk dauzkaten oiek gu baiño askoz obetogo ez al dira bizi?"

Beste Bilbo'tar batek begira zer dion: "Azkenean lortu dut gela txiki bat andrea ta ni bizitzeko moduan. Illean bosteun ta berrogeitamar (550) laurleko damazkiot nagusiari, ta argiarengatik 25 laurleko. Gela au erostea joan

nintzanean berrogeitamar urteko ezkondu bi irten zitzazkidan. Urrengo egunean, ordea, begira zer ikusi nuan: bizitza bat lau gelakin. Batean, bizitzaren jabeak, andre zar bat, bere alaba emezortzi urtekoa eta beste ume txiki bat daude. Bigarren gelan Ogei urteko mutil bi bizi dira. Irugarrenean, ni andrearekin. Eta laugarrenean beste senar emazte baztuk zazpi urteko ume batekin. Guk gelan bertan jatea erabaki dugu, ba, sukaldean nolako surmurrua sortzen dan ikusiko bazenu... Eta azkenez, botella batean daukadan urakin aurpegia garbitu -gelara urik ez da iristen- eta lantegira noa an dagoan urakin aurpegia obetogo garbituaz".

Nik esaten dut berriz, nere baitan: zer txukungeri egongo da gela artan, areago bizitza guztian? Ba olako problema ikaragarriak uri erdian eta uri baztarretan millaka ta millaka sortu dira. Bizimodu negargarri au ikusiaz, nola ixildu gindezke? Astiz jaunak arrazoi guztiz esaten du problema onetzaz itzegitea bearrezkoa dala, eta gainera itzegifiarazi egin bear litzake. Gaitza nun dagon jakin gabe, erremedioa billatzen zailla izango zaigu.

kristautasur aundia dago Espaiñ'n, Meza ta Jaunartzera nagusiak egunero joten dira, prozesiotan lenengo illeran egongo dira palioari laguntzen ez badijoaz, eta bitartea millaka ta millaka pamili bear-gorrian bizi dira idoren la untzik gabe. Au al da kristautasuna? Limosnatxo bat beartsuari ematea ez da naikoa; geiagoko eskatzen digu bere bizimodu gogorrak. Jesukristo'k eman zigun legerik aundiena gogoratu dezagun: "Elkar maita zaitetze Nik maite izan zaituztedan bezelaxe". Beartsuarekin egin bear aundia daukagula itz auek argi ta garbi adierazten digute. Beartsuarekin bizi bear dugu xamurkiro maitatuaz. Emen dago kristautasunaren oinarria ta muiña.

Norbaitek esango dit agian: pamili oiek nun daude ba? Joan zaitetz uri aundietako bazter guztietara, eta biotzik baduzu, sartu etxe barruan, antxen ikusiko duzu nik esan dizudan gauza ta beste gauza negargarriagoak ere bai.

Ta au egiteko kemenik ez baduzu, irakurri zazu beintzat José A. Mateo Jesulagunak argitaratu liburua; "Almas en los Tajos" deritza. Pamili askoren zoritxarrak emen argi ta garbi irakurri ta ikusiko dituzu. Olako liburu ederra irakurri ta irakurriazi egin bear litzake.

Problema ikaragarri au nola sortu dan bai al dakizu? Arrazoiak asko dira. Ona emen banna batzuk:

a) Europa'ko ta Espaiñi'ko lurak ondatuak gelditu ziran guda gogor ta matxinada askoren bidez. Ondamendi ikaragarriak sortu zituzten uri guztietan. Pamili asko bear gerrian gelditu ziran. Alemani'n, adibidez, eunetik 24 etxe ondatu zituzten.

b) Biztanleak oso ugaritu dira, bizi-tzak berriz, ez dira proporzioan ugaritu. 1930'gn. urtean ere bizi-tzak palta omen ziran, orain ordun urritasun ura noraiño igo ote da? Espaiñi'ari begiratuaz ara zer gorabeera aundia sortu dan: urtean 300.000 biztanle geiago sortzen dira gutxi gora-beera; 250.000 ezkontza, beste orren beste pamili sortuaziaz; eta 25.000 bizi-tza bakarrrik jasotzen dira. Begira zer alderdi aundia. Estaduak jarrita dauzkan 110.000 bizi-tza urtero jasota ere, amar urtean problema onek askabiderik ez du izango. Gogoan eduki bear dugu naiz ta Estaduak urterako egindako programan orrenbeste bizi-tza jarri, erdia ere ez duala egiten [En la Escuela de lo Social -Giner y Aranzadi- 7'gn. or.].

Zergaitik? Espaiñi'ko ekonomiak ezin dulako eta... Gauza negargarria, baiña ala da, ta gaiñera eragozpen aundiak dauzka etxeak jasotzeko. Porlana ta egurra oso zaila egiten zaio hanpotik ekartzea. Amerikarrak 500.000 dolar eskeini dizkio Estaduari Finlandi'ko egurra lortu al izateko. Gero askotan ere tekniku bearra sentitzen da. 1956'gn. urtean Espaiñi'n oraindik bein ere ezagutu ez dan etxe zaila jaso zan. Urte ortan Madrillen 9.000 bizi-tza jaso ziran. Lau milla ta erdi txabola zaarretan bizi ziranentzako destinatu zituzten. Lana egiten da, ezin genezake ukatu [Mundo Social, 25 zenb., 78 or.].

Bilba'n ere programa ederra daukate: txabola zaarretan bizi diranentzako etxeak jaso



ta txabolak kendu.

### PROBLEMA ONEN ONDOREAK

Gero problema aundi onek berarekin, es-  
kutik bezela, zenbat ondore txarrak dakartzki! Az-  
tertu ditzagun banaka-banaka.

Lenengo, pamiliaren batasuna edo aita-  
-semeen arteko maitasuna arriskuan, galnidena gel-  
ditzen da. Izan ere gizonak neurri txikiko etxe  
zikin batean bizitzeko iraupenik ez du. Bere a-  
tseden tokia taberna dala esan genezake; umeak,  
berriz, kalean pasatzen dute eguna beren gurasoen-  
gandik urruti. Gaitz erdi, gauz txarrak ikasten  
ez badituzte. Etxean ezin dira bizi. Bizimodu  
txar onekin nola egin pakea? Etxean errita beste-  
rik ez da entzuten, eta okerrago dana gertatzen  
ez bada, gaitz erdi. Azkenez senar-emazteeen i-  
kusi-eziña sortzen da, eta emendik eskontza aus-  
tera pauso bat besterik ez dago. Ba, ezkontza  
auste geienak problema ikaragarri onen bidez  
sortzen dira. Austria'n, eunetik larogei ezkon-  
tza-auste sortzen dirala etxerik gabe edo bizi-  
modu txarrean bizi diranetatik -aitortu dute-  
(Ecclesia, 689 zenb., 355 or.). Prantzia'n ere,  
ezkontza-austeak langilleen artean beste sozial  
klasetan baiño ugartuagoak dira.

Bigarren, garbitasunari buruz, zer esan-  
go dugu? Pamili askotan zoritxarrez, garbitasun  
au ez da aintzakotzat artzen, izan ere ortara  
beartuak dauden ezkeroz zer egingo dute? Agian,  
bizitzeko gela bakarra daukate, edo okerrago da-  
na, pamili asko batera bizi dira, eta orduan gar-  
bitasun au gordetzea bai zailla egiten zaiela!!  
Lo egiteko oe bat bakarra baldin badaukate berriz,  
noraino iritxiko da ango zoritxarra? Gurasoak be-  
ren seme-alabekin lo egiñaz oe batean, nola gor-  
de kristau oitura onak? Emendik sortzen da seni-  
dekeria, au da pamiliko batekin egiten dan peka-  
tu itxusia.

Irugarren, eskontzeak bildur ematen du  
eta berandu arte uzten dute askok. Itxoian bearra  
dago, okasio on bat datorren arte, bizitza bat

arkitu arte.

Laugarren, semeak nola ezitza edo edukazioa artuko dute? Eragozpen aundiak sortzen zaizkie ortarako. Gaiñera, gauz txarrak ikasten eta ikusten joaten dira. Eta erlijio kontuan berri? Gauza auetan pentsatzeko betarik ez daukate, bere bizimoduan jarriak dauzkate buru-biotzak, nola edo ala erintzearren.

Azkenez, gela zikin oietan dagon usaiakin eta txabola zaarretan sortzen dan ezetasunakin gaitz asko batetik bestera itsatsiz joaten dira. Umeak askotan jaio bezin laister beste munda dira. Umeak askotan jaio bezin laister beste munda dira. Nolakozoritxarra dagoan txabol zaar askotan! Gorago jarri ditudan adibideak zoritxar aundi au argi ta garbi adierazten digute. Eta an aipatu dedan liburua irakurtzen baduzu oraindik argiago ikusiko duzu langille askoren bizimodu gogorra [ En la Escuela de lo Social -Giner y Aranzadi- 8 or. ].

"Bizitzarik gabe egotea familiarentzat zoritxariik aundiena da eta kaltegarri gaiñera" -Pio XII'gnak. gogorki esan zuan-. Problema onen bidez pamili barruan zenbat nasketa negargarri sortu dira! Jaungoikoak bakarrik daki bizimodu orren bidez zenbat ezkontza-auste datozen!

Onelako kondizio txarretan bizi diran gizon-emakume asko zoritxarrean ikusten dira, eta egia da. Baiña, zoritxar eta naigabe ori oraindik aundiago ta latzagoa biurtzen zaie erri aundietan gertatzen ari dana ikusiaz. Bizitzak egiteko dirurik ez dagola, eta bitartean eleiz, zine-toki eta bestelako etxe zoragarriak jasotzen ikusiaz biotza erdibitu egiten zaie. Ta au leku guztietan gertatzen ari dala dakusgu.

Gero, aberatsak bizimodu gogorra darimakiten oiekin nolako artu-emanak dauzkaten, ez daukagu orain emen esan bearrik. A. Diez-Alegria Josulagunak Bilbo'n egindako itzaldi batean begira zer dion: "Gaur Espaiñi dagon bezela, gizon asko -egunero Jaunartzen duten oietako gizon asko- inoren preokupaziorik gabe EPULON aberatsaren antzera bizi dira. Orregatik salbatzeko seguran-

tzi aundirik gabe, naiz ta egunero Jaunartzen joaten badira ere". Au egia da, garratza bada ere. "En la Escuela de lo Social" deritzan liburuan samariar zintzoaren antzeko alegi bat dator, eta emen agertzea egoki deritzait: Jesus'ek esan zuan: "Uri aundi baten baztarrean pamili beartsu ta lenetik bizi zan bat zegoan. Beren bizitza txabol zaar bat besterik etzan; jakiña oe bakar-ra lo egiteko. Aitak gutxi irabazten zuan, ema gaixorik oean zetzan eta zeuzkaten iru seme narrats eta goseak eskean ibiltzen ziran.

Auen ondoan, etxe eder ta alai batean bere lorateki ta guzti, PAMILI ON BAT bizi zan. Beren jolasaldiko joan-etorrietan, "Cadillac" on batean txabola ondotik pasatzen ziran, eta pamili beartsu ura ikusiaz aurrera jarraitzen zuten.

Beste igande batean, berriz, SENAR-EMAZTE ON BATZUK txabola ikusita gero aurrera segitu zuten, (izan ere, presaka zebiltzen elizkizun batera joateko asmotan).

Estranjeritik etorritako senar-emazte batzuk bizitzen jarri ziran txabolaren ondoan. Etziran elizkoiak, otoitzean etzekiten, elizako sakramentu ta meza kontuetaz ezer ere entzungabeak ziran, ta jakiña, elizakin ezkondu gabe zeuden. Baiña, pamili beartsu ura ikusi zutenean, errukiz bete ziran eta berengana deituaz, elkar batuta bizitzea erabaki zuten, beste lan eta bizitza itxurazkoagoa lortu bitartean.

Iru pamili auetatik nor deritzatzu txabola zaar artan bizi zan familiaren lagun urkoa izan zala?" Jesukristo'k eman zuan alegia ementxe gertatu da. Lagun urkoa maitatzetik bai urruti daudela aberats asko! Eta au bearrezkoa da salbatu nai badugu; Jaunartzea ta palioa ibiltzea ez dira naiko.

Nolako problema aundia dan bizitzarena au, argi ta garbi ikusi dugu. Baiña ikustea bakarrik ez da aski. Ta, zoritxarrez, mundu guztian onelako asko dago. Samariar zintzoak ( nik jarritako gertakizunean estranjeriko familiak) egin zuana danak beteko balute, orduan bai, mundu guztiko problema onentzat askabide egokia izango litzake.

## PROBLEMAREN ERREMEDIOK

Bizitzari buruz sortu dan problema aundi ta unibersala au soluzionatu nai baldin badugu erri agintariak jarri bearrean gaude erremedioak. Lenen-lenengoa au da: "Gizon guztien elkar laguntza. Bakoitzak -bere bizimoduak uzten dion neurrian- millaka ta millaka pamili beartsuen zoritxar au arindu egin bear luke" Pio XII'gnak. zionez [Diccionario de Textos sociales pontificios - Torres Calvo, 1096 or.]. Baiña askotan (nik uste dut gelaetan) gizonari zail egiten laguntza au, ta orduan Estaduak lagundu bear luke ta berari dagokio gainera [Ibidem].

Bigarren, enpresak ere problema au asko arindu dezakete. Dezaketela ba-dakigu, Eleiz Amak, ordea, gelago eskatzen die. Langilleak bere onerako lan egiten duan ezkeroz, enpresak ere langilleari lagundu bear lioke. Langillearentzat etxe bat jasotzea baiña laguntza aundiagorik bai al dago? [Pio XII'gnak. XIV'gn. Sozial Asteari egingako itzaldian (Ecclesia, 369 zenb. 62 or.)]. Enpresa batzuk langilleentzako etxe asko ta ederrak jaso dituztela egia da; au, zuk, irakurle, nik bezin ondo dakizu, ta enpresa oien izenak ez ni joakizu emen izendatutzero. Problema onentzako askabide egokia izango litzake enpresa aundi guztiak banaka-banaka langilleentzako etxeak jasotzen asiko balira.

Ta, azkenez, Eleizak zer egin dezake problema negargarri onen soluziorako? etxeak jasotzea bere eskuetan ez dago, au jakifinezkoa da. Baina, apaizak asko dezakete, beren itzaldien bidez eta aitortegian sartzen diranean aolku edo kontseju egokiak emanaz. Ementze sartu dezakete gizon askoren buruan Eleizaren gizarte dotrina, ta baita oker asko zuzendu ere. Coroba'ko Gotzai Jaunak urian egin zuana gogoratu dezagun: "Uri aundi ta eder bat jaso bear dugu. Emen bizi dieran jende beartsu auei Jaingoikoarekiko gauzetaz itzegitea ezinezkoa da. Lenengo, etxe sail eder bat jasoaz asiko gera". Eta onela asi zan lanean Go-

tzai Jaun argi ura -joan dan urtean illa-, eta millaka ta millaka etxe jaso ere bai. Olaetxea Jaunak, berriz, Valencia'ra joan zanean, badakizu zer egin zuan? "Palazio eder artan etzala sartu ta biziko uri baztarretako txabola zarretan ainbeste beartsu bizi ziran bitartean". Eta bereztzako gela bakar batzuk antolatzeke esanda gero Salesianotara joan zan bizitzera.

Begira, Eleiza zein ederki portatzen dan beartsu oiekin! Izan ere beartsu oiengan Kristo ikusten badugu, ezin gelditu gindezke besoak gurutzaturik.

Apaizak zer egin eta nola jokatu bizitzari buruz, 1957'go. Jorrrailleko "Razón y Fe" aldizkarian argi agertu zuan Sobreroca Josulagunak. Artikuluaren bukaeran au zion: "Fentsatutako guztia praktikan jartzea zailla da, batez ere orain gauden bezela. Baiña, zerbait egin daiteke eta dana dala gure gogozko dan elburua inork ez digu kenduko".

o o o

o

Irakurle, artikulu ontatik iru gauz auek garbi atera ditzakegu: Lenengo, bizitzaren urritasun au mundu guztian zabaldua dagola. Bigarren, problema onen bidez datozen gaitz asko ta negargarriak. Eta irugarren, zer egin ditekere bere soluziorako.

Bukatu baiño len, ordea, au esan nai dizut irakurle: Jaungoiko ta Ama Birjiñari otoitz egiezu zoritxar aundi ontan bizi diran millaka ta millaka familiak Berak ezagutu ta biotz-biotzez maita ditzaten.

Aranzadi'tar Peliz

Villaro'ko Sakramentinoa

# EUSKAL IZAKERA

Bakoitzak bere izakera ezagutzea, garrantzi aundiko ikaskizuna iruditzen zait. Danok Jaungoikoak emandako izakeraren bitartez santutu bear baidugu. Izakera danak dituzte alderdi on eta txarrak. Santutasuna iristeko, onetik ditugun oiek aurrera atera bear ditugu; txarretik ditugunak, berriz, oinperatu edo zuzendu. Baiña, gizonak bere griña txarrak ezagutzen ez baldin baditu, nola zuzenduko ditu? Eta pitxiak ezagutzen ez badira, zertan erabilli?

Ludi onetan ez omen da gauza berdiñik, dana ezberdiña omen da. Izakerak edo izateko erak ere ezberdiñak dira: bakoitzak berea duala esan genezake. Ala ta guztiz ere, euskal izakera, inglesen izakera ta antzekoak entzun oi ditugu. Nola ori? Naiz berdiñik ez izan, orrek ez du esan nai euskaldunak bere izateko eran alkarren antzik eta antz aundirik ez dutenik. Ber-

din esan leike ingles, aleman eta gainontzeko guztiagatik. Orain, antza dutenak jarri ditza-gun pillatan, da euskal izakerakin, inglesenakin, danenakin arkituko gera.

Euskal izakeraz itzegiten duan liburu bat atera da. Gure izakeraz ez du obetogo oraiñarte inork itzezin. Artetxe da bere egillea, gure erriaz ainbeste itzezin duan Artetxe jatorra. "Saint Zyran" izena darama liburu orrek. Beraren bidez, Artetxe'k euskal izakera plazara atera du.

Batzuk goiak eta beiak jo dituzte liburu au dala-ta. Aien poza!.. Nerea ez da izan osoa. Orrelako lan bat ohei urtetik bein gure artean azaltzen daia pentsatzen jarri-ta... Ala ere, daukagunakin poztu gaitean.

Liburu orrek daraman izen azpian, "Ensayo de caracterología vasca" dioten itzak azáltzen dira. Beraz, ez dezaiogun osotasun guztia eskatu, alperrikakoa litzake. Egilleak, berak ere ba-diola uste dut orrialde batean, euskal izakeraz aritzeko bide bat aukeratu du: Saint Cyran euskaldunaren berri eman ala, euskal izakeraz bi itz esan. Baliteke orrialde batzuetan bide au oso osorik ez jarraitzea... Beste gauza batzuetaz luzatxo ote dabillen iruditu zait noiz edo noiz. Pixkat baliteke...

Itzaurrean, galdera bat egiten dio bere buruari: Saint Cyran bere erritik kanpora

osatu zan eta nik nola artzen dut euskal jator-  
tzat? Euskaldunak bere aal izatearen neurria ain  
zuzen ere erritik kanpora ematen duala esanaz,  
erantzuten dio galdera orri. Naiz batek ardo go-  
rri naparra eraman ziñetan, otz batzuen artean  
jartzen bada, luzarora beintzat, ez ote da oztu-  
ko? Kristau zintzo bat jartzen duzu zuk kristau-  
tasunaren arrasotik ere ez duten batzuen artean;  
edonork bere zuzentasun ori galtzeko arriskuan  
dagola esango dizu. Beste gauzakin ori gertatzen  
bada, izakerakin, ez ain rrez, baiña pixkat ori  
bera ez ote da gertatuko?

Euskal izakera nola agertzen da li-  
buru orretan?

I.- Saint Cyran beifñere alai etzala  
azaltzen adierazi ondoren euskaldunaren beltasu-  
naz itzegiten asten da. Euskaldun amak ez dio be-  
re semetxoari esango: "Ezazu ori egin. Jesus Aur-  
txoari pena emango diozu". Au baizik: "Ezazu ori  
egin. Jaungoikoak zigortu egingo zaitu". Euskera  
bera ere ez dala, dio, egoki-egokia biguntasun  
aundi-aundiatarako. Oker ez banago ara emen bere  
itzak: "Tampoco se presta el vascuence para ño-  
ñas efusivas". Erlijiuan, Jaungoikoaren maitesuna  
ez, Jaungoikoaren zuzentasuna ikusiko omen du.  
Alderdi beltza beti. S. Iñazio, gutxitan izan omen  
zan santuago, gaixo baten eskariari ez uko emate-  
arren bere erriko dantzak dantzatu zituanean bai-  
ño; eta gutxitan azaldu euskaldunago, arren, ber-  
riz orrelako eskaririk ez egiteko Jaungoikoarren,



esan zionean baiño.

Baiezko auek ematen ondo dabillela iruditzen zait. Pierres Llande jesuitak lenago zion Artetxe'k euskaldun amatzaz dio ori. Gaiñe-ra ark onako au ere ba-zion: euskaldunentzat, kulpituko barandillak astintzen zituztenak, ez-tarri loriakin gai beltzak: Jaungoikoaren zuzen-tasuna, betikotasuna, Josapateko epaia eta an-tzekoak erabilten zituzten apaizak, aiek zirala sermolari onak... Erlijioko egiak, Artetxe'k di-on bezela, soilki, tinko sartu zitzaizligun guri. S. Iñazio'ren ejerzizioetan Jaungoikoaren zuzen-tasunak, Saint Cyran'ek Jaungoikoaren zuzentasun ikaragarria esango zuan, ba-du bere tokia. Baita eriotza eta epaiak ere. Vinson eta Rodney Gallop, euskalduna aurreragi illunakin azaltzen dala esaten, bat datoz. Euskaldunen illuntasun au ikusita, ezin-naiz oar bat egin gabe gelditu. Alai ez dan ez-kero, mira alai bat artu bear duala goibeltasun orrekin potzuren batean txorkatilleraiaño anka sartu ez dezan. Orrek zuzendu zuala uste dut S. Iñazio'ren jokabidea eta orren ezak ondatu gure Saint Cyran.

II.- Oiturari gutxiena lotuta dagon euskalduna, oituretatik bizi dela, irakurri dut orrialde batean.

Rodney'k, lur onen gaiñean sortu dan oiturazalerik aundiena, dio euskaldunagatik. Asko esatea da, baiña egitik asko dauka geiegike-ri orrek. Gauza berriak azkar sartu naiean ez

asteko dio baezpadare. Bestela balitekela one-lako erantzunen bat artzea: "Nere aitarentzat on xamarra zana, neretzat ere alaxen da, on xamarra". Ala ta guztiz ere, ez dakit oitura batzuk zenbateraino gorde ote ditugun. Oitura garbi, eder, bikaiñak, ziran antiolako asaben aiek. Oraingoak?... Baliteke ain onak ez izatea. Au guk baiño obeto konbentu barruan ez daudenak jakingo dute. Zer esanik ez, urte batzuek bizkarrean badituzte.

III.- Galdera bat ba-dator orrialde oietako batean. Onela dio: euskalduna lotsati edo bildurti da? Egillearen iritziz lotsati geiago. Erantzuna emateko etzait iruditzen galdera errez erreza. Lotsa ta bildurra ez dira berdin, egia. Baiña, bat lotsati baldin bada, bildurra urruti izango ote du? Eta, bildurti bada, lotsez kolkoa beteta ez ote dauka?

Dana dala, emendik ez dezagun ondoren txar bat atera. Bildurti edo lotsati diran gizonak, askotan jokabide bat artzen dute: azpikeria. Iñork ez beza pentsatu euskaldunak orrela jokatuko duanik. Arpegi illuna nai bada, baiña bera bakarra du-ta... "Euskaldun fededun" esaera ondo irabazia dute gure aurrekoak. Euskal izakeraz itzegitean, bear bearrezkoa iruditzen zait pitxi eder au ez aaztea.

IV.- Lancelot'ek, Saint Cyran'atzaz itzegiñaz, izenordea apaltasunez erabiltzen zuala dio. Oker dagola idazle ori, dio Artetxe'k.

Euskaldun danak bezelaxe, Jansenio'ren lagun ark apaltasunetik ezer gutxi zuala. Au egiztatzeko Saint Cyran'ek idatzitako gauza batzuk azaltzen ditu. Arrokeria ageri da errenkada aietan; apaltasun asko ez, beintzat.

Gure arrotasun oni Cervantes berak ere usai artu zion nonbait. "Quijote" liburuan, orrialde bat ba-da gure arrokeriaz itzegiten duana. Gure aberria, gure oiturak, gure... Itz au askotan erabiltzen dugu. Jakiña, askotan arraziarekin. Gauza askotan ez daukagu inoren inbidirik euki bearrik. Arrokeria griña txar danen erregiña dala esan oi da. Orain euskaldunari, batez ere emakumeari, eskatzen diedana ez daukat txartzat; euskera itzegiteagatik arrotu ditzezela. Asko, gurasoak erakutsitako izkuntza erabiltzen aaztu egiten ez dira ba?

V.- Jokuzaleak ainbeste apustu egiten badituzte, bere aurka beti zerbait bear dutelako omen da. Gure baserritarrak, eta baserritar ez diranak, zenbat apustu egiten dituzten Jaungoikoak bakarrik daki! Batean pelota partidua, bestean ari-jokua, urrengoan iri apustua. Nor geiago dan jakin arte, estu.

Buru gogor xamarrek ote geran baten batek galdetu du. Gure artean egosgogor derente arkitu leiskenian nago. Euskalerrian erdiakin gustora gelditzen diranak izango dira. "Dana edo batez" diotenak ez ote dira geiago?

Gure izakeraz liburu orretan azaltzen diran gauza nagusienak, puntu auetan sartzen dirala uste dut. Oker banago, barkatu.

Artetxe'k liburu orretan gure alde onak eta txarrak azaldu ditu. Beste batek au esango zuan: neure eta nere anaien alderdi txarrak ez ditzadan agertu. Artetxe'k ez orrelakorik. Gizon portatu zaiña.

Garai onean azaldu du lan au. Bearrezkoa gendun. Igaro dan eta igarotzen ari dan denborari alderdi ona ikusteko ondo dator lan au. Jakin dezagun apaltasunetik gaiñezka ez gabiltzala eta orrelako gertaerak arrokeri ori pixkat otxantzeko egokiak dirala.

Inola, geiago eskatu genezaioke euskaldunen izateko eraz itzegiten duan liburu bati. Oni ez, ordea; lenago aitaturako arrazoiagatik. Beraz, ondo dagola esan dezagun.

Zorionak, Artetxe! Eta ekarri asko! Bai, orrelako liburu asko.

Lizagirre'tar J.K.  
Villaro'ko Sakramentinoa

# SEMEEN EDUKAZIOA OÑARRITZEN

Txikitan artzen diran edozein joerak, ondorengo urteetarako ezarritik daukate bere xedea. Aurtzaroan, oitura au edo ori bereganatzeak asko esan nai du, gero bera nagusitzen baida. Joeraren eziketan, edukazioak duan artu-emana ez dugu nolanaikoa. Guztiz bearrezko oiñarrigarria dala esango nuke.

Natorren ikusmiran etika-saillan barna, azkeraren oiñarriak billatuz-gero apaingarri egokienez txukundu ditzadan.

Eduakzio edo azkera, latinezko "aducere" itzetik dator, "zuzenzu" esanaiarekin. Formazio edo egikera, berriz, "forma"tik. Au, irudiren bat margozten ari dan eratzaillea dirudi. Aurren zuzendariak nortzuk diran jakin aurretik, gatozen Santo Tomas'engana, berak neurtuko baidigu azkeraren izatea: "Semeen igoera, gizonari, gizon danez, dagokion onbideko maillatara". Gizona, zorientasun egarria asetzearren, ur asegarriaren atzetik bortizki doa. Milla tokitatik jun leiken iturria badugu ere, bidean galdu gindezke. Beraz, edukazioa bide erakusle iaio ta argia da.

Dakigunez, aurrak, gorputzez, buruz, animaz, aulki, eskutzean datozte lurrera. Obeki esan, materi edo gizon-itxura bakarrik dakarte. Pixkanaka-pixkanaka gorputz-animak osakuntza lortu bear dute. Bizitzaren bide luzeetan topatzen dira amaika kezka-eragilleak, ots, naigabea, illunaldia, ezbeartasuna, larrialdia, t.a. Jakina, aulkeria gainezka palastaka dabillen aurragan, ezin ditzakegu oztopo auek gaindurik ikusi, beragan ez baidago kemenik. Negarrez, begietan malkoak, eskuak luzaturik laguntza eske amaren bularretara josten da. Berekaxa gauza ez diran wzkeroz, auen zaindaritza besteengan dator. Praktikan, legetik kanpo era askotara erabilli oi da. Ikus dezagun nori dagokion lengoz, beste guzien gainetik semeen edukazioa. Gaia bere sustraletan mamitu dezadan.

Aurrenik, bijuazte bi itz Eleizaren eskubideatzaz. Eleizaren partea edukazioan argi adierazi dezake gizonon erakusle ta ama dala esateak. Beraren edukazio-mixutioa ongi jakifik dago bi egin-bide auegaz: gizonari kristau jarraibidea erakutsi eta santutu. Edukatu, kristauki artuaz, gizonarekin batere lan egitearen esanala darama, zeru deiari leku eginez, betiko lo paketsuan esna dedin.

Eleizak ezin dezake eskubide au iñolaz ere baztertu. Guztiokin emeki jokatzen baidu, jokaera onen arrazoa bere amatasun donean billatu genezake. Bere eskuetan dauden gizonak babesten ditu, pozoi ilkorrik edan ez dezaten. Erakuskizunetan elburu auxe daramaki: animen betiko salbazioa.

A.- Semeen edukazioa lenen eta berez gurasoi dagokie.

Buruak lan nekezik egin gabe, errex proba dezakegu, eguneroko esperientzia baidugu maixurik seguruen. Gurasoak semeen azierara zorrozki beartuak ezean, Jainkoak etzizkien aurreri eskuzko zaizkien bizitz ta bertako aurrerapen tajuzkoak osorik eskuratuko. Ba-dakigu, Jainkoagan orrelakorik ezin gerta leikela. Os-

tera, ez litzake Jainko.

Aurak munduratzean, berekin dakarzi-ki bearkizun larrienak. Negarrez jaiotzen da, ta ordu berean amak, naturaz sortzen zaion txorabioz bere magal-besoetan usu kuxkurtzen du. Zer ote litzake Jainkoagan, gurasoengandik datozen aurak, sortzailleen maitasun izpirik ezagutuko ez balute? Egintzarik negargarri, kupigarriena. Begiak iriki baizen laister, egundo ez esnatzekotan itxiko lirake. Gaiñera, gizadiaren aurre-rapena derbora gutxi barru itzaldu-bildurra legoke.

Izadiak, amaren bularrean ugaritzen dun esneak ezer proba al dezake? Egintza au, zalantzari tokirik utzi gabe, guraso-semeen artu-eman estuaren adierazlea dugula deritzait. Berezi kiago mintzatuz, betebear onen erantzuna amari zeatzago dagokiola esango nuke, bere bularretan baidago azitze-garaian aoratzen dun janari kemengarria. Izadiatik datorkio amari, eskubidearekin besoa emanaz, obligazio edo betebearren pixua.

Ume azitzeak askotan, bururatu ezin gindezken lanak ditu, batez ere txikitari. Onen zaintzea laister lurrean oinperatua litzake. aur-maitasun ardura inorenagan naturaz txertaturik ez balego. Gurasoak dira sortzailleak. Be-aiak daramakite doai berezien apaingarria, ots, aurtzarroan semeak arreta aundiz azitzeko erretasuna: maitasuna, pazientzia, alkar-laguntza... Ezkontzaren bitartez loratzen dan aziak, alkar laguntzaren jorraketa eskatzen du, ondoren datorren frutua guraso-kutsuarekin jaulki dedin!

Baiña, gurasoai beren erraietako semeenganako eskubidea nolaz letorkie? Munduratzte utsetik? Ez dirudi. Bestalde, eskubide onen iraupena, semeak irauten duan arterainokoa izango litzake. Egia besterik da. Urtetan aurrera, gorputzez sendotzen, buruz argitzen doazen eran, semekiko gurasoen eskubidea aultze dijoa. Sendi berria sortzeko gazteari urteak eltzen zaizkionean, guztiz erortzen da.

Edukazioa, gizona, gizon denez, dagokion tokira iristeko maila besterik ez da.

↑goera ontan, laguntzaille lenen-lenengoenak sortzailleak izan bear dira. Gurasoen mixioa aurraren jaiotzarekin ez da amaitzen. Lenik, materiaz jantzi dute; urrenik, azkera ta egikeraren bitartez osakuntza erantsi bezaiote.

Pio XI'garrenak barruki, sentikor, azaldu zuen "Casti Connubii" dalako enziklikan: "Aurduntzaren mesedea, aurak ekartzearekin ez da bukatzen. Eskuko zaien edukazio-gosea ase bear zaie". Betor Leon XIII'garrena ao zabalik berbera baiestera: "Izadiak berak, semeen edukazioa gurasoen eskuetan uzten du, leporatuaz baldintza betn zama. Au da, aurraren ikaspide ta azkerak ondo esan dezala jaiok izan diran elburuarekin". Francisco Gonzales'ek dionez, gurasoen eskubidea bide dalarik, sendogarritzat ekarri oi diran arrazoiak ez omen dira biziro indartsuak. Argumentuen ondorioa egizkoa izanikan, premisak akatsez ajeatuak omen dagoz. Azkenik, dio, argumentuen jazkerak ez duela almenik gurasoen egokitasun aundiagoa probatzeko baizik, ez beartasuna.

#### ZER NOLAKO ESKUBIDEZ AZITZEN DITUZTE GURASOAK?

1.- Naturalki, Jainkoagandik zuzenik datorkien legez.

Ezkontza bariuan lore berriak ernetzeko eskubidea, gizonak ipiñitako legetan oiñarritzen ez bada, gizadiaren egillearengana jo bear, Ura baidugu izate guztien sorterri. Sendia, guraso-semeen batasunean, edukazio kutsua daramakin bakuntza dugu.

2.- Ezuskor ta aldaezifnezko legez.

a) Ezauskorra [Inviolable]. Zerutik datorren eskubidea. Onen aurka dijoana zero mailletan tratatzen da. Milla modutara lurperatu leiken eskubidea auxe: ageriz edo izkutuz, bekaizkeriz edo zurikeriz, legez kanpotiko eskolaz edo beste kideko batzarraz.

b) Aldaezifnezkoa [Inalienable]. Gurasoak ezin dezakete eskubide onen aurrean atzera jiratu; gutxiago, bera ukaturik, edukazioa



ausarki zapuztu. Beti izango dira seme-izakera-  
ren erantzun-emailleak, urteetan zear, bakoitza  
bere arnasez moldatu arteraiñokoan.

### 3.- Estadu ta gizarte erritarren aurretiko legez.

Semeak gurasoenak dira; gero bear  
bada Estaduarenak. Arrazoiez, sendiak edukazio  
kontuan lenbizitasuna garamaki, Estaduak bigar-  
ren tokian jarraiki. Lenengoa nagusi, praktikan  
zuzen jokutzen duten bitartean; bigarrena, le-  
nengoaren esanera ernai dagon morroitxoia dugu.  
Ba-dakigu gaur egun bien bitartekotasuna oso  
bearrezkoa dala, inork jakintzan kulturik azal-  
du nai badu beintzat. Ez det esaten jakinduria-  
ren mendi tontorretan ibilli bear danik. Gutxie-  
nik, jakintzaren lenen-pausuak bederen aurrei  
zor zaizkiela deritzait.

### 4.- Sortzezko ta Jainkoaren azpian dagon legez.

Jainkoak erakusten dizkien eran azi  
bear dituzte, jarrai-bidetxigorretan ertzetara  
okertu gabe. Jakiña, sarritan, ain arriskuzko  
egintzetan, gizona ikuskeri beltzez loitzen da.  
Beraren bizibidea etsaiarena dalarik, semearena  
ala izango. Egiz alako esaera ura: "Qualis pa-  
ter, talis filius". Egi barobilla. Gizonak zu-  
zentasuna gutxiesten duanean, aultasuna jabe-  
tzen zaio. Aulkeriak, berriz, bereala animaren  
gaxotasuna dakar. Onela sendia, zoritxarrez mai-  
zegi, dotrin gaiztoz ongarritutako lurra dirudi,  
semeen edukazioa zilipurdika dijoala. Orain ai-  
tortutakoa ditekena dala ezin dezakegu ukatu,  
bestela gertakizun negargarrien mintzairak bai-  
ezkoarekin erantzungo bailiguke. Au dala-ta,  
gurasoen eskubidea ezeztu aal genezake? Gutxia-  
gorik ere.

Jainkoaren aginduerei begira, gura-  
soen konzientzia aurtzaro garaiko egintzetan  
neurtu dezagun. Betebear larri, estua al dau-  
kate? Bai noski. Ezkongaiak, goi uztarriz lotu  
ziran, ezkontzaren elburura eldu zitezzen. Ekar-  
ri dute poxpolintxoia. Bataio urez era-berritu  
ere bai. Onekin aski al dute? Ez. Aurrak gorde-  
rik indar apartak ba-ditu, noiz edo noiz ager-  
tuko zaizkionak. Gaztetan indar izkutu auek

landuz-gero, gizontasuna itxuraz ta mamiz dator-  
kio. Umearen laguntza-eskariak naturaz gurasoen  
biotzak kilikatzen dituanetz, eskua luzatu bezai-  
te, izkutuki barrukoena baidakizkitez. Lanketa  
onen eginbearra, Jainkoarekin batera asiera eman  
ziotenengan dator. Bere itxurazko mardultasunera  
iritxi baiño lenago baztertzea, Jainkoa bazter-  
tzea litzake. Aurak, amaren sabelean gorpuzki  
dan ezkeroztik azi ta edukatzeko eskubide osoak  
dakartzki. Edukazioaren laguntzarekin Jainkoaren-  
gana bagoaz, lenik kristau ikasbidea jakitea da-  
gokigu, ezjakiñean aberas baigera. Ondorioz beze-  
la, semeen eskubideak eraginda, gurasoen betebear  
astunera goaz.

#### B.- Edukazioaren iraunaldia.

Generalki, gorputz-animen sendo-  
tasuna artzen igaro oi dan garaia osta-osta. Azi-  
aroko larrialdiak otxandu arteraiño! Aurtzaroa  
dugu erabaki ordua. Sikologoek iritzian, umeak  
nabaitzen omen ditu alako joeratzu batzuk, onera  
zuzendu bear diranak, okerrerako ere baidute e-  
rakarpena. Gurasoak, biotz ain xamur, ta biguñe-  
tan, erakuspide xuxen, iraunkorrek txertatu bear  
dituzte. Beren egite ta esanetan arretarik ez du-  
tela jartzen? Ez uste egiañala oiek alperrikakoak  
izan diranik, umeen buru zoroan esamesak prest  
antolatzen baidira.

Urteetan aurrera dijoaztenean,  
-iru, lau, bost- eta begiak areago ikusten du-  
tenian, errex erantsi lezaizkioke edozein dotrin,  
aurkezten zaiona gogoz onartzen baidu. Mutil kox-  
kortu danekoxe, amaren magala sarritzetik utzi  
du. Berekoi biurtu da. Gazte itxurakin, gaztedi  
atea igarorik, aurrera itxu-itxuan dijoa. Zenbat  
alperrikako oztopo, oiñak nun botatzen ditun ez-  
badaki!! Alai bezin laiste, itun!

Mundu berriak ezagutu guraren  
egarri da. Nork asetu? Gurasoen eginbearra orain-  
txe dago bete-betean. Su ta gar ekin bezaiote la-  
nari. Etzait iruditzen zillegi ote danik, itsas-  
-aserrearen okotzean, arriskuz inguratuta, itsas-  
-ontzia, laguntzagandik urrun, alperrik galtzen

uztea. Guraso ta Eleizaren esku-zabaltzearekin baretasun ederrenean kaieratu diteke.

D.- Estadia edukazioan.

Estadia ba-du edukazioan gar-rantzizko zatia. Gurasoak ez dira aski. Semeen biar eguneko ibillialdietan pentsatzen duten gu-rasoak, jakingarri bearrezkoenak ezin eskuratu dezaizkieketela oartuko dira. Estadia, gurasoen eginbearraren osatzaillea dalarik, alegin beroz babestu, lagundu bezaio.

Lotu natzaio Pio XII'garren esanari: "Egia ez gerala gu izango Estadiaen le-gezko eskubidea azkeran ukatuko dugunik, guztien onerako oinarrietan sendo tinkatzen baida. Beraren izatasunak guraso ta Eleizaren menpeko egin dio. Beraz, zaintzea dagokio".

Estadiaen lenengo eginbearrik nagusia, azkera soroan, babespen lana litzake. Sendi ta Eleizarekin uztartuaz, bide egokiz gaizkierabiltze ta txarkerien trabak deseindu. Gurasoak, argitasun paltaz edo gaiztakeriz, semeen zaindaritza zabartzen dutenian, Estadiaen ordekaritza argi dago. Zenbait aur eguna begiztatu berriak jaso ditu. Onetzaz gainera, beste alderdi protxugarria Estadiaengandik jaulkitzen da. Eskolak agian.

Eskolak, naiz ta bere mixioaren berezitasuna bizi, edukazioaren eskubidea daukaten borondatea jarraitzea beartuak daude. Eskolaren mixioak mandatarari soilik besterik ez du adiratzten, inoiz ez gazteen gainetik dagon ikas-etxe edo instituzio antzeko zerbait. Jainko ta ~~gure~~ gainetiko eskupetik datozen agintzak zorrotz ~~gure~~ bear ditu. Orregatik, gurasoen berotasunean ~~gure~~ tutako edukazio su txinpartak, ikastolan su-~~gure~~ etan kixkaldu bedi.

Jakina, gazteeri erakusten zai-~~gure~~ on ikaskintzak, gurasoen naiarekin joku egitea ~~gure~~ dagokio, bestalde Jainkoagandik datorkien eskubi-~~gure~~ dea ez bailuke garbi erabiliko. Ikas gaiak berez sail, sakonak, badira, ondo legoke maixuak modu

errexean ulertuaraziko balezaizkio. Ortarako, metodu egunekoan aztertu ondoren, jatorrena deritzaiena aukeratu beza. Gurasoak eskatu dezakete, eskolako maixuak beren semei gogozko zaizkien ikas-lanak eman dezaietela. Sustrai auekin ankaz gora dijoazte "monopolio" diralako eskolak, jauntxoak bailiran, bertakoak agintzen baidute. Gurasoen askatasun, jasapen, zuzentasunaren fundamentuak begiratuak bitez.

Estaduari irakaspena eratzea baldin badakio, ez doa baldintzarik gabe, ots, sendi ta Eleizaren eskubidearekin bostekoa estutu dezala. Ori bai, beti auen menpean morroi txintxo antzo. Ikastolak, naiz ta Estadu barrutiko igalia izan, bakarti bizi leiken bizitza darama-ki. Legezko ausardi trebez aurpegi beltza jarri lezaioke.

o o o

o

Saiatu naiz eskuetan erabil-  
dutan lana ausnartzen. Lantxoaren bukaeratik a-  
tera dezakegunez, iru ditugu semeen azkeran buru  
dijoazkigunak: Gurasoak, Eleiza ta Estadua. Ba-  
koitzak bere elburuari segi bezaio.

Iztueta'tar Paulo


Villaro'ko Sakramentinoa



ALKAR

IZKETA

# IZATEA AZTERTZEN



(Gure aldizkariaren azken zenbakian, bederatzigarrenean, agertu zan "IZATEAREN AZTERKETAN"-i, beste onekin erantzun dio OXIXE jaunak).

Artikulu bat irakurri dut YAKIN'en, "Izatearen azterketan" [9, 1959, 15], Arantzazu'ko Intxausti'rena. An arrotzen diran auzi asko alde batera utzirik, bati bakarrari elduko diot oraingoa.

"Izatea aztertu nai dut -diño isbeak- ez izakia edo entea esan oi duguna".

Euskeraz erabilikia zan izaki itz au ri iaio baino len, eta ez diñot oker dagonik; baiña nik bestera artzen dut: "de natura entis" esateko.

"Gu geu ere izatez egiñak gera".

Izanez, bai, egiñak gira; -n onek aldia du berekin, "irautea".

"Ens eta esse, au da: leenengoak izatean dagoen zerbait ematen digu, eta besteak, "zerbait" orri begiratzeko, izate utsa".

Oker atzi ez ba'dut, ez ote zenuke esan nai ens concretum cum sua forma?, au da, izanduna edo izanez iantzia. Izatea izanez erantzia da; esse metaphysicum adierazten du gurean, ez, izanez iantzia.

"Erderak..., ser esaten du, biak adierazi naiez."

Ez egoki, nere ustez, biak nahasten baititu. Gure aurrek ederki: etre = izatea; ser = izan.

"Izatea ez da atalezkoa".

Egia, eta gogoan idukazu geroko: essentiae sunt indivisibiles, immutabiles, aeternae.

"Izatearen idea gere adimenean dakargu jaiotzetik".

Ez, nere ustez. Gogai ori ez da gurekin batean sortua. Gure adimena tamquam tabula rassa zan gure iaiotzean. Gero, ez dakigu nola, arrazoiketa ezagunik gabe, ondorioka burua nekatu gabe, ialkitzen zaigula idea ori.

"Azter ditzagun, pittin bat bada ere, izatearen erraiak".

Lana artuko duzu. Izateak ez du errairik, ez du mamirik; ez da ezer bere baitan [objective]; gure baitan bakarrean du zer-dana.

"Munduan ez daukagu izatea besterik... Mendiak izate dira, iturriak izate... denok izatea besterik ez gera".

Gure buruko gangaraz landa ez da izaterik, izan ere dana baiño. Gu izandun gira. Iainkoa, berriz, izandun biribila da, latifñez esan, undequaquae ens, edo eskoletako latin gogorrean, actus(purus). Ala ere Iainkoa ez da aldian. Nola-bait esan bearra daukagu izan ere ba-dala.

"Izatearen esentzia... gaia... kalidadek".

Izateak ez du gairik, ez kerarik (guk kera itza bakarka erabili oi dugu); ez du aitorrik edo doairik, zureak beintzat. Ez al diguzu esan lenbizitik: "zerbait"-a utzi ta goazen gu izatea utsera"?

Izate orri zerbaitasuna edo norbaitasuna kentzen ba'diozu, utsa gelditzen da. Ez da ezertxo ere. Gaiñerako zure galdera guzi oriek alper dituzu.

Zer da, bada, izate ori? Galdegiñen didazu.

Eta, bere baitan ezer ez dalarik, gure baitan gauzarik miragarriena. Erraiñu utsa da, ilargi-argiaren antza du. Izandun biribil dan Arengandik datorkigu. Gure buru-ganbarako izate au betikoa da bere deusezean; erraiñu ori ezarri baitziteken betieratik edozein izatedunetan. Zuk S.Bonaventurarekin esan duzuna datorkit burura.

Izate au norbaitasuna da arrazoidunetan, eta zerbaitasuna arrazoigabeetan. Ez du beste erraizik, ez errorik, ez mamirik, ez etorbururik. Arrigarri da, naski. Ez da olako belardirik, lore baratzarik, oianik, malkorrik, ilargirik,



eguzkirik, izarrik. Izate au, izanean ezer ez da-  
la ere, oriek baiño bikainkiago erraiñutzen da  
gugan, eta Argi artara begira uzten gaitu. Emen  
ederki Dabid'ena: Signatum est super nos lumen  
vultus tui, Domine.

Izanean zerbait danaz, edo obeki  
esan, norbait danaz ere, egizu galde: zer da iza-  
tasun ori? Ez dakigu. Gure gorputza berreun zati  
egihen ba'lute ere, eta gure anima artatik bakan-  
du, inon ez genduke arkituko izan ori. Izate soi-  
larekin berdintzen bezala da. Bata beitik gora  
bezala asmatzen dugu, gauzetan sorterrotu baliza  
bezala; bestea goitik beira, argi aundi batetik  
erraiñutuko lizaiguken gisan.

Zer da baiña izan ere ori? Irautea?  
Au ez da pitsik, zerbaiten edo norbaiten irau-  
tea ez ba'da.

Zerbait, norbait. Izandun danaren  
kemen guzien iturri ta iabe dana; Principium  
operationum; gizona norbait egiten duna. Gure  
norbaitasuna, gure ni au ez da gauza kaxkarra;  
aundiz ere aundia da. Ni esan oi dugu askotan  
arro arro, beste NI artatik zintziliça gaudela  
ahantzirik. Zerbait besterik ez diran izandun o-  
riek ez dira urbiltzen ere gure maillara. Ez eta  
izadi osoa ere, norbaitasunik gabe.

Ba-da Norbait betidanik, Aristote-  
le'k asmatu zuuna. Baiña, gaiñera Iainkoak Berak  
bere egia agertarazi zigulako, ba-dira iru Nortzu,  
izandun biribil ortan.

Zertako geiago iakin nai dugu izate soil ortaz, igeskor orrezaz? Gauden orri begira begikaldu (intuitu) batez. Baiñan ez gaudela luzaro orri bakarrari begira. Begia iogun gure Eguzkiari ere. Geiago ezin iakin dezakegun ezkerro, ez gaitezen geiego egarritu izate ori aztertu naiean. Orrengaz, dakiguna baiñon ez dakiguna geiago da, mistikuak Iainkoarengaz diñotena, izate orri bere ezereostasun lainotsu ortan begiratzea atsegiñago zaida Homero ta Dante irakurtea baiño. Ba-dut asmo, noizbait ere ens ut sic [Larramendi'ren utsik orri] Oda bat egiteko. Neri poz aundia emaiten dida, orrezaz dakidan pixka dakidalako baiño, iakiteko daukadana geiago dalako. Eguzkiari begira berez bere luzaro ezin egon gaitezen ezkerro, ilargi ori bederen begira iogun, ierraiñua nondik datorkion ahantzi gabe.

Ez dakit zer iritziko diozun nere Metafisikari; baiñan oiñarri ona dala nago euskeraz izanduna ta izateduna, ots, ens praedicamentale ta ens transcendentale; izanekoa ta izatekoa, ots, quod in actu est, eta quod in potentia est.

" O R I X E "

---

Barkatu, A. Intxausti, baiña, zergatik ez saiatu, euskeraz ditugun itz ederrak erabilten, erderazko itz arri elkortu edo "foñil" zantar oriek alde batera utzirik? Euskera garbiz, euskera garbi amorratura io gabe, esan ditezke eunetik laurogei ta emezortzi.

"O R I X E"-ri erantzun bidez.

Jaun agurgarri:

Eskerrikasko! Benetan atsegiña izan zait zure erantzun au, ustegabeko, baiña oso baitagarri zaidan kabian jo baitit kuak... Eskerrak zure kritika-saioetatik, eta ezten zirikatzaile izan dakidala bera, biok elburu bakarrera erakarri gaitzan gai-sakcuketa onek.

Ba-dut elkarrizketa au jarraitzeko asmo ta gogorik. Bai orixe! Baiña, tamalez, etzaizkit gauzak nai eran egokitu. Gaia, berez da gaitza, ta derriorez garamazki eztabaidakizuna sakondu ta zeazki aztertzeraz; lan ontarako, ordea, ez dut orain bear nuken ainbat beta. Ez dezaizuket zuzendu, beraz, oraingo ale ontan, zure esku-titzari legokion erantzunik. Ea urrengo batean itz egiten dugun.

Alaz ere, zure azken galdera-oartxo au ez nuke ikutu gabe utzi nai. Ni ez naiz nor ezer erabakitzeke, Jainkoari eskerrak ontarako ba-dugu Euskaltzaindi bat; baiña ba-ditut nere kolkoan aspalditik euskal-elerti ta idazleetzaz zenbait kezka nekegarri. Onoko galdera auek aurkezten badizkizut, ez da inor samintzearren, ene barnean argi egin dezaidazun baiño.

Ezkutukeri gabe aitor dezaizuket: nik ez ditut zenbait idazleen lanak ulertzen, edo askotan nekearen nekez iristen dut zerbait, ta ez idazleak lagundu ta erakarri nauelako, nere burua beartuaz baiño. Ba-dakit, oraintsu billera batean espezialista batek norbaiti erantzun ziona jaurtiko zaidana: "Ori, euskerarik ez dakizulako da..." Baiki, ala da. Baiña ori bera gertatzen zaie euskera ikasten urteak daramazkiten eta erri-errian bizi diran beste batzuei ere. Izenez aita nezazke auetakoak. Gaur-egun, eskola gabe gaudelarik bai aal dugu **IZAN BEAR LUKEN**, baiña iñun **EZ DAN** goiko euskera ori iñori eskatzeko eskubiderik?

Irakurlea jaso egin bear da, bai; baiña, eskolarik ez dugula, eginbear au nork bete lezake idazleak berak ez bada? Idazleak, ordea, iñor eziko badu, ERAKARRI egin bear ditu irakurleak, ta au ez dut uste noizbait jator izan liteken euskera ezezagun ta -gaurkoz- aberatsegi danizkera baten bidez lortu dezakegunik. Oker nagola? Ez nuke besterik nai.

"Euskera garbiz... esan ditezke eunetik laurogei ta emezortzi". Egi osoa, noski. Baiña euskera errez ta ulergarria izango ote da orrelako ori? Zorionekako edo zoritxarrez izango da; baiña, idaztean, ezin ditut aaztu gure errietako karreradun euskal-ikastolagabeak. Auek irabazi nai nituzke nik iltzear daukagun euskerarentzat, erri xearen aurrean gure izkuntzari ospe onik eman dezaioten. Ogi-bidetzat aukeratu dituzten jakintzetan ikasiak; baiña euskalariak ez diran auentzat idatzi bear genuke, batez ere.

Gaurko eskola-eza oztopo dugularik, zillegi aal zaigu izan bear luken euskerara ZUZENEAN jotzea? Bide zabala baiño zearkako bidetxigorak ez ote zaizkigu onuragarriago? Argitu dezagun adibide batez nere esanaia. Bi itz dauzkagu onoko au adierazteko: "id quo res est id quod est: ESENTZIA ta ZER-IZANA. Azkeneko au, ondo banago, zure meza-liburuan irakurria. Gaurko eskolagabetasuna aurrean dudalarik, onela erabilliko nituzke bi oiek: geienetan esentzia ta noizbeinka zer-izana. Ona nere jokabidearen arrazoia: Euskerak, zer-izana bezelako, millaka ta millaka itz-berri bear ditu; baiña ez ditzakegu itz auek eskolen bidez barreiatu; idazleak egin bear du, beraz, zabalketa au. Irakurleak, berriz, apurka-apurka bakarrik ikasi ditzake, itz-ugoldea bat-batean bizkarrera bagenezai, ito egingo genuke. Iritxiko da noizbait, eskolak ditzagunean, zer-izana ta kideko itzak erruz erabilli aal izango dugun ordua. Dinbitartean, saia gaitezen, aal dan eran, euskera indarberritzen, gaurko mendi-makillak leenbaitleen alperrikakoak gerta dakizkigun.

Ta amaitzeko, euskaltzale batek idazten zidana: egunak joan, egunak jin, Jainkoa dardilla guziokin.

Zure-zure

Intxausti'tar Joseba

Arantzazuko praillea

---

L O Y O L A ' t i k .

"Euskal Etxea" Loyola'n

Sayo bat baizik ez da izan, esateko, guk emen egin duguna: leen sayoa. Ta leena izanik, nai ta naiez bear zituen olako edo alako maketsak; ez zekigukean batpatean irten, guk besterik nai ta ere, erabat bipilla. Urteekin ta aurtengoak eman digun atuiñarekin obe genezake noski, datozen urteetan, aurtengo sayo au. YAKINen aditzera emateak ere ez luke bearbada balio, baldin alderdi on bat izan aal ezpa'leza: ots, guk egin duguna jakiñez, pizkor ditekela beste zenbait praille gazte ere guk egin dugunaren antzeko beste sayo bat egitera. Orixe bai litzakela ederra! Gero euskai saillen batean lan egin nai dugunok, bear bearrezkoa dugu zailtzea. Txalogarria litzake, arean, praille gazteen arteko onelako elkar-leia bat: nundik irtengo alegia oberenik lan egingo, duten gazteak, naiz idatziz naiz mintzatuz.

Laburki ta jakin'garrietak soilik emateko esan didazute. Onenean danik eta jakin'garriena, zenbaitentzat bederen, auxe izango da: jesulagunak olakorik antolatu dutela jakitea. Ez bait-dute uste gure artean onelako azirik erne ditekunik. Auxe izan da dena: jesulagun gazte batzuk illabete osoa bildu gera Loyola'n euskera landu ta obetzeko. Oña'n Teoloji ikasten ari geranak giñan geientsuenak; ikastetxeetan

irakaskintzan ari diren bizpairu ere erantsi zaizkigu. Geiago izan gintezkean, ta geiago izango giñakean noski, etor zitezkelako baimena garaizago adiraz ba'genie guziei. Amabitik amabost lagunera biltzen giñan; pilla polita, denon artean egoki lan egiteko.

Eguerdi artean ikastaldi ta irakastaldi bat; bazkal ondoan beste orrenbeste. Bildu giñan den-denok nola edo ala mintzatzeko gauza baitgiñan, zeran artu dugu batikpat arreta: alik eta ondoen mintzatzan, izkera aberasten, miiak zorrozten. Gure artean mintzaera bakarra euskera izan da illabete ontan. Jatorduan ere irakurgaiak euskerazkoak. Jolasean naiz ibiltera irtetean, euskeraz ari oi giñan. "Joanak joan" izan dugu eskolako irakurgaia. Orrez gaiñera, aditzari eman diogu astiñaldi epel bat.

Azken egunetarako, ta etorri naiko zukean zenbaitek Euskal Etxe'ra etortzerik izan ez zuelako, itzaldi batzuek eratu genituen. Leen egunez, Mitxelena Luis jauna etorri zitzaigun. Gaurko eusko-literaturaren joerari buruz itzegin zigun, oi duen tajuz ta jakitez. Bigarren egunez Txillardegi jauna izan genuen. Gaia or nunbait ber-bera ukitu zuen. Oni, gaurko gazte ikasñ bati dagozkion kritika zorrotza ta bizarririk gabeko ago-jarioa zerizkion. Argi ta zabal mintzatu zitzaizkigun. Irugarren egunez Basarri jauna. Euskeraren egoera artu zuen itz-gai. Izkera dotorez ta ipin-apan erriaren zenbait berri eman zigun.

Auxe izan da dena. Emen aritu geranok pozik gelditu gera, ta datorren urtean, aal ba'ledi, berriro sayo bera egiteko asmotan. Iñork atsegin badu gure lana, pizkor bedi beste orrenbeste egitera. Denon onurako izango da.

Altuna'tar Patxi, S.J.

### B I Z K A I t i k

(Derio'ko apaizgai batek Prantziko berri onak bialdu dizkigu).

Agorrillaren 6-ko "HERRIA"-n agertu zan artikulu batek auxe inoan prantzerez:

"Il onen 27, 28 ta 29-an, Bayona-ko "Musée Basque" etxean batzar txiki bat bilduko da, arduratsua batez be Euskalerriko lenengo eta bigarren irakaskintzan diardutenen maixuentzat.

"Prantzian, geroa ta alegin geiago egiten dabe irakasleak gaztedi bere iaioterriko ambientetik ez aldatzeko. Irakasleak nai dabe errialde bakoitzaren edesti ta geografia, edesti ta geografia nagusi edo generalean ezartzea, erriko kulturaren gaiak (abesti, esakun, t.a.) programa ofiziale tako gaien artean sartzea, ta batez be errietako izkuntzari bideak zabaltzea".

Baiña, zer egin orretarako? Zelan lortu leiteke ori?

"Jakintsu batzuek erantungo dabe nola jokatu bear dan gai onetzaz Euskalerrian, Akademiko nagusien baimenagaz".

Ikusten dogunes, txalogarriak dira Prantziko irakasleen asmoak. Erri bakoitzaren nortasuna aipatzea nai dabe ta ez zapaltzea. Auxe dala, uste dot, legezko bide zuzenean ibiltea. Jakintza, erriari berari dagokion lez emon bear yako.

Baiña etziran geratu asmoetan bakarrik. Asmoak bete egin bear dira ta orrexetarako bildu ziran, ba, Bayona'n ainbeste euskaltzale, maixu ta irakasle, danen artean erabaki sendo bat artzeko, au da, ikusteko zelan eskoletan aurrari euskera irakatsi.

Esan eta egin. Urrillan asita, aurrerantzean, gure bestekaldeko anai-arrebatxoak euskera ikasiko dabe euren iksatoletan, onelan euskerak iraun daian.

Gure aurtxoak euskaldunak izanda be, eskoletan euskera aztu-edo egiten dabe, erdera baiño entzuten ez dabelako. Ta gure umetxoak euskerarik egiten ez badabe, zein izango da euskeraren geroko zoria?

Gero, aurrak euskera ikasteko "IKAS" (Bulletin trimestriel) deritxon liburuxka bat jarri dabe Euskalerriko ikastola guztietan.

Geiago: lengo batean, irratia entzuten nengoala, Pariz-ko irratia esan eban erderaz, gitxi gorabera, "Bayona'ko Gotzaiaren bitartez, Euskalerriko eskola katolikoetan aurreri euske-

ra irakasteko baimena lortu zala ta, gaiñera, Gotzai berorrek bere apaizgai guztiak seminari-  
oan euskera ikasteko agindu ebala". Zorionak!

Garitaonandia'tar Josu

Derio'ko apaizgaia

---

L A Z K A O ' t i k .

Kronikan esaten dugun beze-  
la, Lazkao'tik etorri zitzaigun Muxika'tar Erru-  
pin beneditarrak berri pozgarri bat eman zigun:  
gure Aita Mokoroa "ideoloji iztegi" bat egiten  
ari omen zaigu. Lan ederra eta bikaiña. Gutako  
askori bururatu ere egingo etzitzaiquina. Eta  
egin du zati bat: gaur 30.000 milla fitxa dauz-  
ka poliki jarrita eta beste 20.000 inguru pape-  
retan an-emen sakabanatuta.

Batentzako lan aundia, ordea, lan eder  
auxe. Orregatik guk zerbait esan genuen denok  
lagundu bear geniolari buruz. Adibidez, gure  
ikastetxe askotan ba-dira euskal akademi edo  
batzar txikiak; oiek artu dezakete berengan lan  
oni laguntzea. Esate baterako urtean liburu bat  
edo bi arakatur. Edo areago, bakoitzak liburu  
bat urtean barna.

Gaurkoz ez dakigu zeatz-meatz nola egiten  
dituen fitxak Aita Mokoroak. Urrengoan ia ematen  
dugun onen berri. Baiña gutxi gora-beera, ba-da-  
kigu nola diren ideoloji-iztegi aukerak.

Denok lan egiteko, ordea, besteek zer  
egin duten jakin bearrean gaude, bestela alper-  
rikako lana egingo genuke-ta. Orregatik argita-  
ratzen ditugu emen gaurrarte Aita Mokoroak az-  
tertu dituen liburu ta beste orrien zerrenda.  
Iñork lagundu nai balu, artzen duan liburuaren  
berri, berdin eman bearko luke.

Yakin'en urrengo zenbakietan berri geia-  
go ematen joango gera. Yakin'en eta baita beste  
illeroko orritxoan ere.

Onatx Errupin'ek diguna:

Aita Mokoroaren txartel edo fitxai buruz  
ez dizut argitasunik ematen. Ala ere, A.Mokoroa-



ren txartelen arkibidea jartzen dozut:

Nº	1 a	796	Periódicos varios de 1931 y 32.
"	797 a	1027	Locuciones que trae Igº Mº Echai- de.
"	1028 a	1507	De Kirikiño (abarrak), (muy poco).
"	1508 a	2435	Periódicos varios de 1932 y 33.
"	2436 a	3108	Idem 1934.
"	3109 a	3562	De oidas en conversación. 1934, 1935-36.
"	3563 a	3684	Euskalduna, 1934-35.
"	3685 a	4667	Oidas en conversación. 1934-35-36.
"	4668 a	5469	Mendiburu (J.B.Devocioa).
"	5470 a	6000	Joannateguy (J.B. Iñhabetea).
"	6001 a	6728	Periódicos varios y conversación.
"	6729 a	8760	Axular (geroko gero).
"	8761 a	9384	Euskalduna 1936...
"	9385 a	10498	Haraneder (Philothea).
"	10499 a	11000	Urruzuno (Meza Santua).
"	11001 a	12663	Joannateguy (Sainduen Bizitzea).
"	12664 a	14652	Euskalduna 1938...
"	14653 a	16430	Euskalduna, conversación, etc...
"	16431 a	17966	Iztueta (Gip. Kondaira).
"	17966 a	18121	Ramos Azcarate (Ijito Ezkontza).
"	18122 a	18210	Eskonaguerre? (Athaka gaitzeko).
"	18211 a	18421	F.Segura (Pachiko Cherrén).
"	18422 a	18460	Daskonaguerre, conversación,...
"	18461 a	18470	(de Axular).
"	18471 a	18789	Euzkadi, primer trimestre 1913.
"	18790 a	19016	Periódicos varios y conversación.
"	19017 a	20685	Arrese Beitia (Kantaria).
"	20686 a	21863	Moguel (Peru Abarka).
"	21864 a	22683	Arrese Beitia (Asti-orduetako...).
"	22684 a	23057	Joannateguy (Ehun bat sainduen...).
"	23058 a	23874	J.A.Irazusta (Joanixio).
"	23875 a	24645	Orixe (Santa Cruz apaiza).
"	24646 a	25044	Locuciones recogidas por Altube en Euskera 1925.
"	25045 a	25605	Conversación 1940 y 41.
"	25606 a	26219	Euskalduna y otros periódicos de 1926.
"	26220 a	29144	Lardizabal (Testamentu zar-ber- ria).
"	29145 a	29253	Refranes varios.
"	29254 a	29805	Ayhenart (Atzotitzak).
"	29806 a	33406	Otoitz-gaiak.

Orain arte jarritakoak, ikusten denez, txarteletan idatziak ditu, baiña ba-ditu beste 20.000 zuzendu gabe. Auek nundik artu ditun azaltzen dizut:

Fray Bartolome, 1 tomo.  
Euskaldunak, Orixe.  
Kempis, Arrue.  
Betoldo eta Bertoldino, Otxolua.  
Baserriko eskola, G.Arrue.  
Oracio mentala (Villacastin), G.Arrue.  
Etxepare, (Primitiae)  
Kristauaren bizitza, Cardaveraz.  
Leizarrague, Testament berria.  
Ipuintsuak, L.Ormaetxe.  
Aguirrereren Platikak  
Duvoisin (asita).

Egin digu lana galanki A.Mokoroak; guretzat, gazteontzat, eredu dizdiratsu izan daiteke. Orrelako asko bagenitu euskaldunon artean, ziarri gure biotzeko euskera gaixoa laister baiño laister indar-berrituko litzake udaberriko zugaitz mardularen antzo.

Aita Mokoroaren jokabideak adore emanda ekin dezaiogun lanari gogor eta iraupen guziz.

Txomin Agirre'n "GAROA" aztertzen ari nintzan eta ba-nijoa aurrera doi-doi. Zuen artean ere norbaitek lanari ekiten badio, ze idaztiari eldu dion berri eman mesedez, lan alperrik ez dezagun egin.

Beste baten emango dizuet oraingoan nai-ko zenduen argitasuna. Agur, bada, ordurarte.

Muxika'tar Errupin,

Lazkao'ko beneditarra

A R A N T Z A Z U ' t i k

YAKINlarien billera. Agorraren 10-11'ak

autatu genitun gure urteroko billerarako. Eta erabaki bezela, txintxo asko, zein goizago zein beranduago, emen bildu giñan amarraren eguerdirako. Uste aundia izan dugu billera auetan, naiz ta kaxotasunik kaxoenean eraman. Eta aurten ere poz ta indar aundia eman digu. Bildu ere mordoxka ederra bildu giñan: lau apaiz gazte eta lau apaizgai gazteago, iru Derio'koak eta bat Donosti'koa; bi Iosulagun, bi sakramentino, bi laterandar, beneditar bat eta gaiñerantzeko bostak Arantzazukoak. Ogeikote ederra! Ba-du gaztedia gure erriak, iaio ta trebe lan egingo duen gaztedia! Elkartasun bikaiña egun artakoa: ori zan izan ere gure aurreneko xedea. Eta ori, Karmeldar, Pasionista eta Iruñako apaizgaiak ez etortzea pena genuela gero! Ba-zuten gogoa auek ere, ta benetakoa izan ere; baiña egunak txarrak, eta, naigabez baiña, ezin! Pasiotarrak egun berean, amarrean, Urbian ziran "mendi-eguna" ospatzen, eta arratsaldean etxeratzean, ujujuka! agurtu giñuzten Aloña gaiñetik. Joan bearra zeukaten, baiña biotza Urbiara bidean dagon Erroitegi inguruko arizpean zeukaten, noski, antxe baigeunden gu, elkartasunik xamurrenean, belar biguñaren gaiñean eta pago mardulen itzalpean. Toki biotz-bera uraxe, batez ere guretzat, euskaldunontzat, gure izatean aritzaren miña daramagunontzat.

Ba-giñan billera ontara lenengoz gentozenak ere, eta elkar ezagutzen ez genuenak. Lais-ter, ordea, biurtu giñan anai, benetako anai, xede berdiñen jarraian baigiñoazen.

Elak ezaguketak egin eta leenbiziko bi billeren lanak ikusirik, Goiko Aitari "Aita Gure" baten bidez argia eskatua, poliki-poliki, berotzen joan giñan. Eta ondo berotu ere. Ideak ziran, ordea, bero zebiltzanak, ez aurpegi-ukabilak. Munduko aundikoteak ere orrelako batasun eta pakean jardungo balira, azkarrago eta onuratsukiago erabakiko lituzteke beren gaiak.

Baiña eztaukat betarik ez tokirik nola ibilli giñan adierazteko. Erabakiak, egiñak, garrantzi geiago euki, eta oiek emango dizkitzut: gure izketa eta erabakiak. Ba-dakit irrikitzen zaudena gure erbakai eta jardunak jakiteko, eta esango dizkitzut, eta gogoz esan ere, jakitekoak baidituzu.

### Euskal itzak eta nola idatzi euskeraz.

Gure jardunaldi beroena eta luzeena betikoa izan zan, zuk ondo dakizuna, igaz ere ondo astindua izan baitzan: gure euskera, nola idatzi bear genuen, alegia. Eta denok ez izan iritzi batekoak.

Igazko bereizketa bera aurten ere: batetik irakurleari, bestetik euskerari begiratzen ziotenak; eta nork zeñi begiratu ala pentsatu.

Onela zioten lenengoak: Euskaldunon artean jakitun asko ditugu, eskoladun ugari. Beren etxean, eta lagun-lagunekin ere bai, euskeraz jarduten dira. Jakintza gaietan sartzen diranean, ordea, erderara jo bearra izaten dute, euskerak ez baidu jakintza ortan terminolojirik. Ez al da gure eginbearra oiek gureganatzea, eskoladun oiek beren kultur-gauzetaz euskeraz mintza ditezten lortzea? Ezin ukatu problema onen gaurkotasuna ta benetako bizia. Zer egin? Al dugunik errexen terminoloji unibersala onartu -mordillokeria eta unibersal diran itz batzuk edo asko onartzea ez dira berdin-, eta jakitun oiek gureganatu, euskeraz irakurtzera erakarri, beren gaiak ere euskeraz erabiltzera beartu.

Bigarrenentzat, ordea, pekatu da orrela jokatzea euskeraren aurka baigoaz. Eta onela argumentatzen dute: Itz oiek, terminoloji ori orrela ematean, ba-diteke euskerari on baiño kalte geiago egitea, guk jakin gabe itz oiek euskerak ba-dauzkalako; eta lendabizi, ba-diran edo ez ondo ikusi gabe ez daukagu itz unibersal diran oiek erabiltzerik. Terminoloji ori unibersalki ez baiña, euskeraz eman al baditeke, seguru asko ulergarriago izanen da, euskal itzak berez ere argiago damaizkigute ageri nai ditugun ideak-eta.

Aurrenekoak onela darantzuiete, ordea: itz oiek, naiz-ta euskerazkoak izan, geienak guk eta oraintsu asmatutakeak dira; edota bestela izan, euskaldun geienak ez dakizkitez. Orretzaz gainera gure oztoporik aundiena beste au da: eskolarik eza. Eta gure euskal itzak berez esan naiko dute argiago eta trebeago adierazi nai dugun idea, baiña irakurtzen, itz oiek erabiltzen, euskera ortan jarduten, oitu gabe gauden ezkerok... orrela egiteak eragozpen geiago dakarkigu, euskaldunak euskeratik aienatu egiten baidizkigu. Gorago esandako eragozpen orrekin, euskal-eskola gabeak izate orrekin, alegia, oso zailla da itz oiek sartzea. Eta gainera, euskal itz berri oiek izango dute beren esanaia eta beste izkuntzak baiño argiagoa bearbada, eman nai dugun idea ori emateko, baiña beste kultura batean gaude gu oituak, eta gaurkoz beintzat, zirkunstantzi edo elarte auetan, obe izango dugu puru pixkat izanda, zerbait lasaiago ibiltzea, Aizkorri puntara igo gabe, jakiña!

Biek dituztela gero akatxak eta ez txikiak. Batak mordoillokeri amorraturako bidea ardu dezake eta besteak euskera eder eta garbia damaigulakoan elkortua eman dezaiguke, inoiz izan eztan euskera.

Baiña ezin ukatu bien arrazoia ere, ta arrazoi pusketa gainera. Zein ordea, obe? Ez jakin; baiña berean tinko dagoena besteratzeta bai zailla! Bien erdira etortzea biderik errez-zuzenena?

Guk erabaki auxe artu genuen: gaurrarte YAKIN'en agertu izan dan kultur-terminoloji osoa bildu eta Orixe'ri bialtzea. Orixe jaunaren lana -euskeraren eta euskal gaztediraren izenean arren, eta arren eskatzen dioguna- auxe litzake: itz oien ordezkioak euskeraz eman, ondoan au adieraziz, berak edo besteren batek asmatua, edo erriak lendanik erabillia dan, eta euskal itz orri iztegi unibersalean dagokiona erabilliko luken.

Azken erabaki au onartu zan, eta gure eztabaidarik sendoena eta luzeena, luzeena bai beintzat, ontan bukatu genduan. Eta erabakiak artu bañarrrik, ez; aurrera dijoa erabaki oien

zertzea ere.

Baiña ez dago or idazle askoren akatsik aundiena, ez. Joskera, sintasis-a, edo "itzurrena", norbaitek esan zuan bezela, orra gure utsik nabarmenena. Ba-dakigu, ordea, ez dala gaixo ori bereala sendatzekoa. Sendabide bi dauzka: asko irakurri eta erruz idatzi. YAKIN'ek berak ez al digu ontan ikaskizun ederra eman? Irakurri ditzagun geien idatzi dutenen lanak, eta konparatu lendabizikoa eta ezkenengoak.

Itzen arazo ondoren, ontaz ere jardun bearra zegoan, ba. Emen ere bi mutur: gaiari begira batzuk eta euskerari begira hesteak. Baiña ezkongarri ziran eta ezkondu ere ezkondu egin genitun. Onatx jarraibide labor-labor:

GAIAK, berez estu diranak labor eman. Ez lan batean gai zabal bat eman. Gauzak pölliki baiño labor esa. Ortarako bakoitzean gutxi esan.

EUSKERA, errexa! Eztitezela lanak edonola itzulian izan. Lendabizi norberetu, norbere mami biurtu eta orduan idea oiek lagun bati adieraziko bagenizkio bezela eman, euskera-euskeraz eman. Asko kostatako lana, baiña la ederra!

Orra ba: euskera, errexa eta gaiak, labor eta interesdunak.

### EGIN.

Euskaldunok elkar kritikatzaille majoak gera. Albokoa lurrera jaurti bai, baiña norberak ezer egin ez. Eta gure artean orrek du garrantzirik aundiena: EGITEAK. Zerbait, baiña EGIN. Eta optimistak izan. Baiña denok! Ederra izango litzake guziok erabaki au artuko bagenu; guziok, YAKIN'en irakurle eta idazle guziok: denok euskera ikasten saiatu. Nola? Batzuk idatziz, eta denok gure eguneroko jardunaldiak euskeraz egiñaz. Euskaldun danari, euskeraz beti; eta gaur, nola esan ez nekialako, gauzaren bat esan ezin badiot, gogoan artu beste baterako, pentsatu, galdetu eta ikasi, eta ez esan euskeraz ezin esan ditekenik. Orreña bai seguru dijoala gure erria. Ekin eta yarrai bide ortatik. EGIN, orrek du emen garrantzia, eta ez agoz euskaldunak gerala esan menengo eta gero gure bizitzan erderaz mintzatu. Gaitezen zentzudun. Bear duguna:

EGITEA. Emen edo an, etxean edo kalean, nunai, beti: EGIN!

Iritzi billa.

Aspalditxotik izan ere, kezka bat genuen YAKINlari askok: gustora al daude gure arpidedunak errebistarekin? Nola ikusten gaituzte beraren bidez? Zer eskatzen digute? Eta onelako galdera asko generabilzkin gere kolkoan. Ori dala-ta, enkuestatxo bat gertatu dugu. Sarri asko ez omen dute enkueta auek nai aña ematen; ori, alde batetik guziek eta bestetik zintzo erantzuten ez dutelako da, noski. Guk, ordea, uste osoa dugu zuengan. Ba-dakigu, eta arren eskatzen dizuegu, zintzo eta denok erantzungo duzutela. Esan lasai eta iñoren bildurrik gabe bakoitzak pentsatzen duzutena, naiz ezizenpean, naiz izenarekin. Orra nun bialtzen dizuegun zenbaki ontan bertan orritxo bat bizpairu galderakin. Erantzun eta bialdu lenbaitlen. Guk aurretik milla esker!

Illeroko bat?

Ba-dugu euskaltzale YAKINzaleok beste kezka bat ere. YAKIN, urtean iru aldiz ateratzen da bakarrik. Urriegi derizkiogu, bai urriegi. Baiña ezin gaurkoz sarriago atera. Geienez urtean lau; baiña ori ere gutxi iruditzen zaigu. Artu-eman gutxiegi dugu gure artean. Ez dakigu elkarren berri, batez ere guztion indarrak batu bearrean gauden garai ontan.

Ona nola erabaki dugun: lau orrialde kaxkarreko aldizkaritxo bat atera. Gure "txikitxo", illero aterako litzake. Elkar zirikatze bide bat izango da. Bere gaiak auethek: iritziak, kritikak, sujerentziak; an-emengiko berriak, elkarren lanen berri, liburu berrien kritika, zabalak t.a. YAKIN eta euskerarekin ikusirik daukaten gai guziak izanen dute toki orrialdetxo oietan.

ARREN, ba, -seguru asko Eguberrietan asiko gera lendabizikoz ateratzen-dabiali esateko duzuten guzia. Orritxo onek bai bear due la guztiona izan, irakurle ta idazle, denona. Denok jaso bear dugu euskera. Bialigauza onak eta jakingarriak, iritzi eta kritika zuzperga-

rriak, sujerentzi eta ames berriak. Lan egin dezagun.

Ona gure erabakia, guztion pozgarri guk uste.

Gure billerak edertzen.

Gure billeratzaz ere mintza giñan eta gogoz mintza ere. Bertiko anaitasun eta elkartasuna galdu gabe, gure kaxotasun oni ùrrengo urteetan beste era bat biltlatzen saiatzeko ~~asmak~~ agertu genitun.

Urtean barrena pentsatuko dugu nola eta noiz billera ori egin. Orregatik ezin emen gauza aundirik esan. Bilduko gerala, alegia, ez dugula gure elkartasun au galduko, on aundia egiten digu-ta.

Azken orduak. Azken orduetan, bakoi-tzak bere etxeko berriak eman zitun. Aurreko orrialdeetan ikusi zenitun ninbait, Loyolatik, Bizkaitik eta Lazkaotik bialitako berriak. Jakingarriak eta zuzpergarriak benetan euskaldunontzat. Milla esker berri-emaille auei.

Eta... agur! Agur, bai, agur; baiña ez sekulako. Arantzazun igarotako ordu aiek bertikotu nai genituke guk, baiña eziñean elkarri besarkada xamur-bero bat eman-eta gure etxeetarantz egin bearra izan genduan. Baiña agur orrek ba-du bere muga: datorren urterarte. Urrengoan geiago eta obeki.

Eta onelaxe, labur-labur emen esanda bezela, bukatu genitun bi egun eder aiek! Irudimenarekin ez dituzu asmatuko emen esan gabe utzi ditugun ainbat gauza eder, goxo, ainbat biotz gartsu eta gazte. Ez! Bizi egin bear, bizi, ordu aiek. Jauna, emaizkiguzu orrelako ugari, gauta egun lanean diardugunon pozgarri!

Eta irakurle, zuri ere agur egin bearrean gaude. Ez ordea esan bearreko beste gauzatxo batzuk adierazi gabe.

Geigarri: Derrior jakin bear dituzun gauzatxo batzuk esan beas dizkitzugu. OARTU



ONDO.

Zenbaki zarrak berritzen? Aspaldi

ontan iragarle asko ari zaizkigu YAKIN'en len-  
dabiziko bi zenbakiak bialtzeko eskatzen. Le-  
nengo bi zenbaki estatistik eztaukagu ordea ale-  
rik ere. Baiña ahalbatek eskatzen dizkigute-eta,  
ezin gabe utzi; orregatik berriz ateratzera go-  
az, lenengo eta bigarren zenbakiak. Urtarako  
gogoan artu: nai dezutenak eman zuen izena.  
Lenbaitlen, Ama Sortzen Garbiaren egunerako,  
esate baterako. Enkuestarekin batera bialti de-  
zakezue eskabidea. Esan argi lenengoa ETA biga-  
rrena, edo lenengoa EDO bigarrena, biak edo bie-  
tatik ZEIN nai dituzuten.

Lenengo zenbakia besteen formatoan a-  
terako dugu, orrela eskatzen baidigute askok  
zenbaki dana liburu batean enkuadernatzeko. Bi-  
garrena atera zan bezela, gainerantzeko beste-  
ak bezela atera baitzan.

Diru kontuan, ordea, ezin berdin ko-  
bratu. Esplikazioak ematea sobran dagola deri-  
tzagu eta onatx argi zenbaki oiek zenbat kostako  
diran: LENENGOA = 15 laurleko, eta BIGARRENA  
= 20 (onek ia 200 orrialde ditu).

Dirua ere gora?

Bai, dirua ere gora.

Billeran gai oni ere ikutu zitzalon eta ontzat  
artu zan zerbait igotzea.

Orainartean laurleko gutxi ziran urte  
osoan irabazten genitunak. Egia esa, etziran  
50'ra irixten. Orain, oredea, seilluak igo du-  
tenarekin bakarrik, dexente galtzen dugu.

Ontan gelditzen gera, ba: Gogoan artu:  
YAKIN'en urteko iru zenbakiak eta gure orritxo  
orren urteko amabi ateraldiak, guztira 50 (be-  
rrogeitamar) laurleko. Eta YAKIN'en zenbakiak  
banaka: 12 laurleko. Datorren urteko salneurria,  
ba, 50 laurleko.

Latin-Amerikakoak alde batera utzi ta,  
oar bat egin bearrean gaude gainerantzeko atze-  
rrietan daudenentzat. Seilluetan bakarrik di-  
joazkigu 20 laurleko urtean, eta orregatik, oien-

taz urteko salneurria 75 larulekora jaso bearrean arkitzen gera. Ala gelditzen da ba: 75 laurlekoan.

Latin-Amerikan bizi diranei asko eskertuko genieke urteko bi dolar ordainduko balizkigute. Semeak aitari bezela, itxaropenez eskatzen dizkizuegu. Milla esker euskal saillean lanean ari diran gazte auen izenean.

Ona, ba, argi: Urteko ordaina 50 laurleko, eta atzerrian 75.

Nola ordaindu?

Ona askok aurkitzen duten eragozpen bat, nola ordaindu.

Begira: azkenengo ila uetan korreo eta zertifikatu gauza guzi oiek gorakada ederra egin dute. Ori dala-ta argi ta garbi adierazten dizugu gure naia:

Bakoitzak JIROZ ordaindu zazute urtearen asieran. Eta asiera ori onela ulertzen dugu: ABENDUAREN 20-a BAINO LEN. Orrela ordaintzen dutenak ez dute 50 edo 75 laurleko bialtzea besterik. Kontuan euki bezate, ordea, jiro-paperan, zertarako dan adierazten dan lekuan, YAKIN jarri bear dala. Jiro paperak lau atal izaten ditu: matriz, talon, libranza, resguardo; guri onera etortzen zaiguna TALOIA da. Atal orren bekaldean SELLO jartzen du lau errai gorrien barruan; orretxen gainean jarri zenezakete YAKIN; edo baita atzekaldean ere, TEXTO jartzen duan tokian. Ez utzi beintzat jarri gabe. Bestela beti gabiltz gauzak zuzendu eziñik.

Biali, ba, jiroz Abenduaren 20'rako datorren urteko arpide-saria.

Egun ortarako gure eskuetara etortzen ez bada, reembolsoz kobratzea naiago duzutena- ren ezaugarri izango da. Baina, kontuan artu reembolso'ak asko igo dutela eta lau-bots laurleko geitu bearrean izango gerala.

Garbi ba: jiroz bialtzen dutenak Abenduaren 20'rako biali eta kontuan izan zertarako dan adieraztea. Besteeri urtearen lenengo zenbakiarekin kobratuko diegu reembolsoarena geituz.

Orain berritzera goazen zenbaki zaar- rak reembolsoz kobratuko ditugu, aurretik, zerta-

rako dan garbi adieraziaz, ordaintzen ez bazaigu beintzat.

Argi? Kontu pixkat izan eta dena xuxen-xuxen joango da. Milla esker!

Oar bezela atzerrian bizi diranentzat: liberak (frankoak) eta dolarrak artzen ditugu, errez baizaigu emen aldatzea.

Eta laguntza eske.

Bai, laguntza eske gatozkizu, Gorago esan dugu denok lan egin bear dugula. Ona gaur guziori eskatzen dizuegun lana, mesedea: aurtengo urtean, lenbaitlen, BAKOITZAK ARPIDEUN BERRI BAT! Ez dago esan bearrik euskerari emango diogun laguntza. Arren, ba, denok lanera: bakoitzak, BAT, baiña denok.

Orrela berealaxe edertuko dugu gure errebistatxoa, txukundu, aunditu, merkatu... Bakoitzak, BAT.

Mesedez.

Gure YAKIN'ek ba-du liburu-kritikarako ere bere tokia. Eta gustora egingo dugu lan gure liburuen berri ematen eta zabalitzen. Liburuen jabeeri, mesede bat eskatzen diegu, ordea, gure ktirika ta zabalkundea nai duzutenok bialia ale bat, bi obe.

Milla esker!

Eta etzaitut eskerrik onena agertu gabe agurtu nai.

Eskerrik onena abegi ona dagiguzulako, emen esandakoa, den-denak, ontzat eta zeure eginkizun bezela artuko dituzulako; eta baita zenbaki onen berandu-irtetzea barkatzen diguzulako ere; Ez genduan guk ala nai, baiña alaxe atera da. Barkatu, eta guk milla esker!

Agur! Eta beste bat arte.

Enbeita'tar Kepa

Arantzazuko praillea

Y A K I N G A R R I   B A T.

YAKIN, ikusi dezakezunez, mardultzen dijoa. Ona bere amargarren ateraldian. Ori dala-ta, ongi iruditu zait atzerantz begiratzea, zer egin dan ikustea.

YAKIN'ek ezer egin duan edo egin dezaken-eta, ala-olako marmarrak ere maiz entzun ditugu. Oientzako, siñisgabe oientzako, batez ere lan au.

Emen ikus ditzakezu zenbat lan eta idazle sortu dituan gure errebistak. Kontuan izan ez ditudala arakatu"Elkar-izketa"-k sortu dituan lan ta idazleak, atal ori ez baita YAKIN'en jomuga berezia. Emen, ba, gure errebistaren lana:

<u>Nungoak</u>	<u>Idazleak</u>	<u>Lanak</u>
Apaizgaiak	5	9
Arantzazukoak	16	47
Belokekoak	2	4
Iosulagunak	4	4
Kanpoko prantziskotarrak	1	2
Karmeldarrak	3	4
Lasailletarrak	1	3
Laterandarrak	1	2
Lazkaokoak	6	16
Pasiotarrak	4	6
Sakramentinoak	10	15

Nork lanik geien egin duan:

- 8   Pernando, Arantzazukoak.
- 6   Balerdi ta Muxika Lazkaokoak.
- 5   Bereziartua ta Baztarrika, Arantzazukoak.
- 4   Gaztañaga, Apaizak; eta Guarrotxeta ta Intxausti, Arantzazukoak.
- 3   Esnaola, Zurutuza, Unzurrunzaga, Arantzazukoak;  
Etchehandy, Belokekoa;  
Mikel Santiago Lasailletarra;  
Joxe-Austin, Pasiotarra; eta  
Aranzadi, Sakramentinoa.
- 2   Labaka, Apaizgaia;  
Iturria, Ayestaran, Azurmendi ta Ulazia, Arantzazukoak;

- 2 Erdozaincy-Etchart, Kanpoko prantziskotarra;  
Abelin, Karmeldarra;  
Lasa, Laterandarra; eta  
Dorronsoro, Muxika ta Otaegi, Sakramentinoak.
- 1 Atxaga, Dorronsoro ta Azurmendi, Apaizgaiak;  
Aperribay, Berasaluze, Osa ta Etxebeste, A-  
rantzazukoak;  
Irola Arnand, Belokekoa;  
Iru Garate, Medinabeitia, Goena ta Landondo,  
Isulagunak;  
Arantza ta Botanz, Karmeldarrak;  
Baztarrika, Eiheraberri, Artola ta A.Bittor,  
Lazkaokoak;  
Damaso, Amadeo ta Bolintxu, Pasiotarrak; eta  
Saiza, Goikoetxea, Galdona, Bengoetxea, Iz-  
tueta ta Eizaguirre, Sakramentinoak.

Ona:

52 idazle

111 lan

9 ordena edo idaztetxe

Eta lan oiek denak Teoloji, Filosofi  
edo Kultura gaietakoak dira.

63 lan Teoloji-filosofi saillekoak

48 lan Kultura saillekoak.

Len ere esan dut ez ditudala ezertara-  
ko ere ikutu "Elkar-izketa" sailleko lanak.

Ara lan baten egia, errealitatea.

Sifisgabe oiek ikus bezate emen YAKIN'  
ek egin duan lana. Lana, bai, lana; ta mardula  
gaiñera. Erreza al da 52 idazle berri etziran  
tokitik sortzea?

Tori beza Euskalerriak eta Euskaltzain-  
diak gazte auek beren biotzik onenarekin egin  
duten lan eder au.

LIBURUAK

OMAECHEVARRIA ( Fr. Ignacio): Euskera. Un poco de Gramática y algo de Morfología del Verbo vasco. Ed. Icharopena. Zarauz (1959). 320 or.

Ba-du liburu onek, azalak dion baiño mami mardulagorik. Iru ataletan bereizia dago: aditz-morfologia, aditz-paradigmak eta idazki-sailla.

Leenengo atalean, morfologian (7-59 or.), euskal-aditzaren joskera ta berezitasunak zeatz eta zientifikuki aztertzen ditu Aita Omae-etxebarriak. Ba-dakigu zenbait teoria berri ere ba-direna, ta egilleak gogorik leiantsuena leen-biziko atal ontan jarri duena; onegatik, ziur nago, ba-da emen izkuntzalari ikasientzat ere jakingarririk. Ta auentzat izango da batez ere atal au.

Bigarren atalean datoz aditz-paradigmak (61-142 or.). Paradigma aurretik adizki guziaz banaka-banaka azterkatzen ditu egilleak. Paradigma-sailla onela banatzen da: 11 intransitibukoak, 22 transitibuari dagozkionak, ta 6 paradigmek zabaltzen dituzte aditz-sintetikuaren jokaerak, ibilli ta eraman eredu direla, ta azkenik beste bietan jokutzen dira erabilli, ekarri, jakin, euki, ion, eritzi, egon ta joan aditzen erarik nagusienak. Guzira 41 paradigma dira, ba. Aditza buruz ez dakitenentzat ere bada arkibide oso egoki bat. Arkibide au eskuetan duelarik, edonork topa dezake edozein adizkera. Atal au bai onuragarri oinbeste idazle gazteontzat. Tamalez, gipuzkera bakarrik dute paradigma auek.

Iruugarren atalak liburu erdia daramaki (142-320 or.). Aita Villasante'k eratu du idazki-bilduma au. Ogetamasei idazle dira guzira: 12 Bidasoz andikoak, 16 gipuzkoarrak ta 8 bizkaitarrak. Bilduma au aditzari begira egin bada ere, bestetarako ere balia gaitzke, eskoletan euskera irakatsi ta irakurgai egokiak ikasleeri eskuratzeko, alegia. Idazle bakoitzari bere bizitz-laburpen bat ezarri zaio; onela liburuazear, euskal literaturaren kondairari

soaldi polita egiten diogu. Gaiñera bildu diran zati bakoitzari iztegitxo bat erantsi zaio. Iru-garren atal au ezin-obeagoa gerta dakieke gure euskal-ikastoletako ikasleeri.

Benetan liburu erogarria auxe. Ba-du zer esanik ikasieri, bai euskal-gazteoi, baita euskaldun berriei ere.

Nai duzutenok, eskatu YAKIN'era. En-kuesta bialtzean egin dezakezute eskabidea. Sal-neurria 40 bat pesetakoa izango da.

I.'tar J. ofm.

---

BILBAO (Aita Felix, Arantzazuko praillea):  
Ipuin-barreka.- Gráficas Ellacuria. Bilbao(1959).  
280 orrialde. Salneurria, 35 laurleko.

Ona liburu barri bat. Ipuin txorta bat dogu. 1954'garren urtean Euskaltzaindiak sarituta ipuin-txorta. Gure Aita Felix gaztearen luma bizkorretik urten daben 54 ipuin eder, barre osasungarria ta alaitasun sanoa sorrarazteko a-proposak. Bere euskera, bizkaiera, erri-errikoa dogu, errez-erreza. Ba-dauka sua ta gatza. Bizkaierak berez ei dauko, danak diñoenez, grazia berezi bat ipuinetarako. Izan be Kirikiño aundiaren lana dauko gure euskerak, eta oneri zor deutso nunbait bere fama au.

Ipuin oneek irakurritakoan auxe esan eban Aingeru Irigaray euskaltzain jaunak: -Zu, ta ipuin auek egin dituen praillea dala diozu? -Bai, Jauna. -Gezurra dirudi praille batek orrenbesterañoko gatza ta grazia eukitea...

Zer uste eban ba Irigaray jaunak? Prailleak gatzbakoak dirala? Aita Felix ez beintzat. Mutilla agiri yaku bera gatz-kontuan. Benetako euskaldun osoaren berbeteak zelako giarra ta mami gizena daukon jakiteko, liburu gitxi topauko dozu au baiño egokiagorik. Beraz, barre egitea, ta barre egitea euskeraz, ba-ditu balio bi, nere ustez, liburu goxo onek.

54 ipui goxo, barregarri... gure mundu onen damoskuzan nekeak arintzeko, biatza alaitzeko, berebizikoak.

Ia, ba, euskaldunak, eta batez be bizkaitarrak, abegi ona egiten deutzazuen. Eta zuri, Aita Felix: zure liburu au eztaitelaz azkenengoa izan. Zure luma bizkor ori eztagizula ugerrez beteten itxi. Azken agurrean diñozun, lez, ikusi zaiguzala laister zure irakurleekin barriro be.

Gura dozuenok, eskatu Yakin'era, enkuestarekin batera.

E.'tar K. ofm.

---

### B E R R I A K

(Tokirik ezak, aspalditik emateko genitun berri jakingarriak, labur-labur esatera beartzen gaitu.)

Eusebio Erkiaga'k irabazi du 1958'garren urteko "DOMINGO AGIRRE" Nobela-saria.

Donostiako Diputazio-Jauregian bildurik 1958'garren urteko "Domingo Agirre" nobela-saria emateko izendatu ziran batzarrekak, au batez erabaki dute:

LENENGO: "Araibar Zalduna" izeneko nobelari ematea "DOMINGO AGIRRE" saria. Bere egillea Eusebio Erkiaga da.

GIBARREN: Jakifarrazi, sariketara etorri diran beste nobelen artean ba-daudela bi -Peru Leartzako" eta "Ithurralde"- dituzten merezimendu dudarik gabekoengatik aipamen berezi baten irabazle egin diranak, eta batzarrekoak penaz ikusten dutela lan oriek sari gabe gelditzea, saria bakarra eta zatitu eziña dalako.

Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute Donostian 1959'ko maiatzaren 27'an.

Frimatzaillak: Manuel Lekuona, Nazario Oleaga, Angel Irigaray eta Antonio Arrue.

-oOo-

"LORAMENDI" (Bedoña'ko Aita Joakin)'ren gorazarrez Euskaltzaindiak antolatutako literatura-sariketaren erabakia.

Poesia. Lendabiziko saria "Maldan behera" poemari; egillea Gabirel Aresti(Bilbo). Bigarrena, Aita Victoriano Gandiaga'ren (Arantzazu) "Lelo xamurrak"-i. Aipamen bereziak: "Izar eta odei"



Antonio Bilbao(morga); "Sei olerki" Jaime Querejeta(Elorrio); "Lizardi'renean" J.Igacio Goicoechea(Tolosa), "Egun txintatik arratseraño" A.Eusebio Igarza, OSB. (Lazkao); "Bedoña'rako osto bi-koitza" Eusebio Erkiaga(Bilbo).

Teatroa. Eusebio Erkiaga'ren "Kanpaien atsekabez" lanari lenengoa eta Jose Antonio Arcocha Martija'ren (Ondarru) "Leniz'ko alaba"-ri bigarrena. Eta aipamen berezia Manuel Ziarsolo'ren (Bilbo) lan bieri: "Bertsolari sariketa" eta "Berpizkunde goizean".

Itz lauz. Lendabiziko saria Luis Jauregi'ren "Loramendi eta bere garaiko euskal-literatura" deritzaion lanari. Eta bigarrena gai berdiñeko Aita Julian Iyorre'koaren lanari.

Sariak erabaki dituztenak: Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray eta Luis Michelena.

-oOo-

Aurtengo Apirillean Bilbon, Deustuko Unibersidadeak antolatu zuen "Lora-Jokoetako" norgeiagoketan, euskal-saria aspalditik YAKIN' en idazle dugun, Arantzazuko Esnaola'tar Anastasio Aitak irabazi du.

-oOo-

Guk guziei ZORIONAK! Ekin eta jarrai!

o o o o o o o  
o o o o o  
o o o  
o

EUSKAL SARIKETEĀ AMAR URTETIK AMAIRU URTERAKO  
NESKA-MUTIL BIZKAITARRENTZAT

1. Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko neska-mitillentzat 1960'gko. maia-tzean egiteko, adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amairu urtera izan bear dabez. Zimentarriak oneik dira:

2. Sariak izango dira: Leenengoa milla pesetakoa, eta amazortzi sari bosteun pesetako. Euskaldun aberatsak emoten badabe orretarako dirua eun eta berrogeta amar pesetako sariak iminiko dira gaiñerakoentzat. Sariez gaiñera aipamen bereziak egin aal izango jakiez nabarmenduten diraneri, eta baita neska-mutillak gertetan dabezaneri be, diploma dotore batzuk emonik.

3. Sariketa esamiña bat euskeraz egiñik erabakiko da, eta gaiak izango dira: 1. Kristiñau dotriña. 2. Bizkaiko erri-bertso-sorta bat Euskaltzaindiak argitaratu dauena. Buruz ikasi bear izango dabe edozein bertso-soñu erabillirik. 3. Gura daben ipuin bat idatzi bear izango dabe buruz. Orretarako, "Abarrak", Euskaltzaindiak argitaratu eban ipuin-sorta E. Bustunza-rena, iminten da eredutzat, eta ango ipuin bat edo beste edozein tokitan ikasirikako bat aukeratu lei. 4. Bakotxa bizi dan erriaren gaiñean zerbait idatzi. Erakusbide modura gai batzuk emoten dira, libertade osoagaz erabilli aal izango direanak, bai zuzenean edo bai zearka, eta guztiak edo batzuk bakarrik: a) Elexea, b) Erria, d) Baserriak, e) Frabrikak, d) Dendak eta merkataritzea, g) Arrantzua, h) Labrantzea, i) Gentea eta oiturak, j) Bidaje batean sentidu doguna, eta abar. 5. Domingo Agirre'ren "Kresala" nobelea iminten da liburu irakurgarria legez, batez be idazteko oiturea artzeko, baiña ezta ezer itanduko bere gaiñean.

4. Batzarra Euskaltzaindiak izentauko dau egingo dan eguna adierazoten danean.

5.- Izenak 1960'ko Aprillaren 15'arte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Ribera, 6-Bilbao). Izen-deitura, bizileku eta jaioteguna adierazobear dira.

A R K I B I D E A

Euskaltzaindiari . . . . . 3

TEOLOGI-FILOSOFI-SAILLA

Aita Santuaren itza -- Muxika'tar Errupin,  
beneditarra . . . . . 6

"Berri Ona" etorri zauku - Arnaud Erdo-  
zainzy Etchart, pratziskotarra 19

Ortega'ren bizitz-errazoimena - Intxausti'  
tar Joseba, Arantzaukoa . . . 28

KULTURA-IAKINTZA-ANTZE

Bizitza - Aranzadi'tar Pelix, sakramentinoa 39

Euskal-izakera - Eizagirre'tar J.K., sakra-  
mentinoa. . . . . 49

Semeen edukazioa oñarritzen - Iztueta'tar  
Paulo, sakramentinoa. . . . . 56

ELKAR-IZKETA

Izatea aztertzen - Orixek . . . . . 67

ORIXE'ri erantzun bidez, Intxausti'tar J. 72

Loyola'tik - Altuna'tar Patxi, S.J.. . . . 74

Bizkaitik - Garitaonandia'tar Josu . . . . 75

Lazkao'tik - Muxika'tar Errupin, OSB. . . . 77

Arantzazutik: billeraren berri eta eraba-  
kiak, Zuzendaritzatzen oar-  
rak, t.a. E.'tar Kepa, ofm.. . 80

Yakingarri, Liburuak, Sariketak. . . . . 89

Eukal-sariketa berri bat . . . . . 95

